




EAE-KO HEZKUNTZA-
SISTEMARAKO

II. HEZKIDETZA-PLANA, BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN 2019-2023





Aurkibidea

AURKEZPENA 4

1. JUSTIFIKAZIOA 6

- 1.1. Dokumentua prestatzeko prozesua eta egitura 8
- 1.2. 2013-2017ko I. Hezkidetzaren Planaren ebaluazio-memoriaren laburpena 8
- 1.3. Egungo egoera:diagnostikoa 12
- 1.4. Berdintasunaren eta hezkuntzaren arloko erreferentziako esparru juridikoa eta arauemailea 20

2. NAHI DUGUN ESKOLA. BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN 29

- 2.1. Hezkidetzako eskolaren bidean aurrera egiteko oinarritzko elementuak 32
- 2.2. Hezkidetzaren zutabeak 34
- 2.3. Helburuak 38
- 2.4. Lan-plangintza 39


3. KUDEAKETA SISTEMA 47

- 3.1. Jarraipena eta ebaluazioa 48
- 3.2. Komunikazio-estrategia 50
- 3.3. Baliabideak 51

4. ERANSKINAK 52

- 1. Eranskina. Arduradunak, helburuak eta ekintzak 53
- 2. Eranskina. Hezkidetzaren zutabeak. Haur Hezkuntza 61
- 3. Eranskina. Hezkidetzaren zutabeak. Lehen Hezkuntza 64
- 4. Eranskina. Hezkidetzaren zutabeak. Bigarren Hezkuntza 67

5. BIBLIOGRAFIA 71



AURKEZPENA



“EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)”

plan honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskal hezkuntza-sistemari eta, zehatzago esateko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapei aurretik aipatutako hezkidetza-eskolan urratsak ematen jarraitzeko aukera eskaintzen die. Bertan, berdintasunaren bidean aurrera egiteko beharrezko urratsen kontzeptu-gakoak aurkituko dituzte, baina, halaber, hori errealitate egiteko behar diren material eta tresnak eskainiko dira.

Planak hiru helburu estrategiko ditu:

- Hezkuntza Saila eta hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetza-eskola eredua sustatuko duten egituraz eta pertsoez.
- Bultzada ematea ikastetxeek genero-ikuspegia beren kulturean, politiketan eta jardunbideetan txertatzeari.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa, detekzio goiztiarra eta erantzun eraginkorra lortzeko mekanismoak martxan jartzea.

Helburu horiek berriak eta lortzen errazak ez badira ere, berdintasunerantz abiatzeko nahitaezkoa da egitura, material eta gidak dituzten irakasleak izatea, norabide horretan urratsak emateko modu bakarra baita.

Plan guztia hezkidetzaren zenbait zutabetan oinarritzen da, eta EAEko ikastetxe guztietako ikasgeletan benetako praktika elikatuko dute.

Hauek dira hezkidetzaren zutabeak:


1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.
2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
3. Emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen sozial eta historikoa.
4. Gatazken konponketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
6. Espazioak ikastetxean eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak.
7. Berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala.
8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku-hartzea.

Plan hau prestatzeko, elkarlanean jardun dute Hezkuntza Saileko bertako langileek eta EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundeak.

Sexu-indarkeriaren prebentzioa gaur egun utopia posiblea da”¹

M^a José Urruzola Zabalza

1 Urruzola, M. J. Emakumeen kontrako foroan aurkeztutako hitzaldia. Cadiz. 2006



1. JUSTIFIKAZIOA



- **“EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)”** plana koherentea da EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Planak ezarritako lehen-tasunekin eta XI. Legegintzaldirako Hezkuntza Sailaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Doku-mentu Programatikoa² ezarritako lehentasunezko berdintasun-politikekin.
- *“EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)”* planak hezkidetza gure erkidegoan zer egoeratan dagoen aztertzen du eta, Planean zehaztutako hezkide-tzaren funtsak oinarri hartuta, espezialitate-arlo batzuk planteatzen ditu, jarduketa-eremuetan azter-tzeko (prestatuntza, baliabideak prestatzea, proiektuen eta jarduketa zehatzen diseinua, ebaluazioa eta segimendua ...). Era berean, ikasleen arteko errespetua, elkarriketa, elkarerreraginak, elkartasuna eta berdintasuna ekar ditzaketen metodologiak erabiltzea nabarmentzen du.

Horretarako, ikastetxeetan garatutako proiektuen esperientziak eta jardunbide egokiak daude, bai eta Berri-tzeguneen (laguntza-zerbitzuak), Hezkuntza Ikuskaritzaren eta Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakun-dearen (ISEI-IVEI) eta Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen aholkularitzak metatutako eta parteka-tutako ezagutza ere.

II. Plan honek aurreko Planean erakunde eta eragileen artean hasitako inplikazioa eta elkarlana azpimarratzen du, diseinu-etapan eta garapen-etapan topaketarako eta kontrasterako aukera egon dadin, eta hezkidetzako eskolaren ereduari aurrera egiten jarraitzea du helburu, kontuan hartuta hezkidetzako eskolak helburu duela mota guztietako sexismoa gainditzea, genero-berdintasuna lortzeko lan egitea eta emakumeen aurkako indar-keria eta, azken batean, sexismo hori jatorrian duen edozein indarkeria prebenitzea eta berarekin amaitzea.

Hori dela eta, 2013-2017 aldian garatutako Planaren jarraipena da, eta plan horren esperientzia eta balorazioa hartzen dira erreferentzia gisa, eta beste esparru batean kokatzen da; izan ere, tresna eta erreferentzia be-rriak ditugu, eta horiek aintzat hartu behar dira bizikidetzako positiborako, aniztasunaren baliorako eta pertsona guztientzako errespeturako espazioa planteatzeko orduan

Hezkidetza elementu nagusia da, genero-aurreiritziak eta -estereotipoak gainditzeko. Eskola funtsezko eragile sozializatzailea da, eta, testuinguru horretan, ikastetxeak ezinbestekoak dira ikasleen artean botere-harrema-nak eraldatzen laguntzeko; horretarako, aldaketa batzuk egin behar dira, berdintasunean oinarritutako eta in-darkeriarik gabeko hezkuntza bermatzeko. Era berean, espazio egokiak dira, ikasle guztiak dauden sexu-iden-titateen aniztasunarekiko errespetuan sozializatzeko.

Hala ere, eskolak, berez, ezin dio erronka handi horri berak bakarrik aurre egin. Eskolak karga gehiegi du gai-nean, gizarte-arazo guztien erantzuntzat jotzen baita. Beste eragile sozializatzaile batzuen eta gizarte osoaren inplikazioa behar da. Berdintasunaren arloan eta genero-indarkeria prebenitzearen arloan, esku-hartze globa-len aldeko apustu egitea ezinbestekoa da.

Hezkidetzaren aldeko lanean zeharkakotasunaren ideia hori sekula baino beharrezkoagoa da; izan ere, gure gizarteak jarraitzen du harremanak sexuen artean eremu guztietan simetrikoagoak izan daitezen eta espazioak pertsona guztientzat seguruak izan daitezen apustu egiten.

2 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA, ETA KULTURA SAILA. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Dokumentu Programatikoa. XI legis-latura. 2014

1.1. Dokumentua prestatzeko prozesua eta egitura

“EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)” plana prestatzeko, talde eragilea eratu da; taldean Hezkuntza Sailean hezkidetzaren eremuan prestakuntza eta esperientzia dituzten langile teknikoei parte hartu dute, alegia, Hezkuntza Ikuskaritzako, ISEI-IVEIko, Berritzegune Nagusiko, zonako Berritzeguneetako eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako zerbitzu zentralerako langileek eta Hezkuntza Saileko berdintasun-teknikariak.

Bigarren fasean, zirriborroa eragileei banatu zaie, hura aztertzeko eta ekarpenak batzeko (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza eta Berritzeguneetako hezkidetzako aholkularitzak), eta lantaldea eratu da, proposamen berriak aztertu eta sartzeko eta hasierako zirriborroan aldaketak eta egokitzapenak egiteko.

Bi talde horien lanetik abiatuta, bigarren zirriborroa prestatu da, eta hura eragileei, unibertsitate-eremuko erakundeei eta hezkidetzako adituei bidali zaie, azter dezaten. Azkenik, dokumentua jendaurrean jarri da, Irekia - Gardentasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Atariaren bitartez, herritarrek eta elkarteek beren ekarpenak egin ahal izateko.

Plan hau epe laburreko eta ertaineko helburuak zehazten dituen gida-dokumentua da; hala ere, dokumentu bizia eta irekia da, segimenduaren eta ebaluazioaren esparruan behar eta interes berriei erantzuteko aldaketak eta egokitzapenak sartzeko.

Dokumentu hau hiru ataletan egituratzen da. Lehen atalean, Planaren abiapuntua jaso da, aurreko planaren ebaluazioa hartzen da kontuan, hura prestatzeko eginiko prozesua aurkezten da, diagnostikoa egiten da eta, azkenik, oinarri duen lege-esparrua zehazten da.

Bigarren atalean, hezkidetzako eskolan aurrera egiteko funtsezko elementuak zehazten dira, bai eta hezkuntza-etapetan ikastetxeetako hezkidetza-planetan jaso diren ekintzen bidez garatu beharko diren hezkidetzako zortzi zutabeak ere. Datozen ikasturteetarako helburuak zehazten dira eta lan-plana ezartzen da; bertan, helburu zehatz bakoitzari lotutako ekintzak jaso dira, bai eta haren segimendua, ebaluazioa eta kronograma egin ahal izateko adierazleak ere.

Hirugarrenean, segimendurako eta ebaluaziorako ezarritako kudeaketa-sistema eta planaren komunikazio-estrategia aurkezten dira. Azkenik, ikastetxeetarako erabilgarriak diren zenbait baliabide aurkezten dira.

Gainera, ikastetxeei zuzendutako zenbait eranskin jaso dira; horietan, proposatutako oinarriekin lotuta dagoen etapa bakoitzean garatu beharreko ekintzen proposamena jaso da.

1.2. 2013-2017ko I. Hezkidetza Planaren ebaluazio-memoriaren laburpena

Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko I. Gida Planaren³ Memoria izeneko dokumentuan jaso den I. planaren ebaluazioa prestatzeko, zenbait iturri hartu dira gogoan: 2017an Hezkuntza Ikuskaritzak eginiko txostena; ISEI-IVEIk eginiko txostena, “Euskadiko Lehen Hezkuntzako eta DBHko genero-berdintasuna” izeneko; zonako Berritzeguneetan jasotako informazioa eta datuak (prestakuntza zen-

³ Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko I. Gida Planaren Memoria.

troetan, guneetako mintegiak, egindako jarduerak...); Planaren batzorde teknikoak prestatutako segimenduko eta ebaluazioko urteko txostenak; eta beren deialdiaren babesean hezkidetzako proiektua garatu duten zentroetan jasotako datu eta informazioak.

Era berean, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiarekin, Euskadiko Genero Indarkeriaren Behatokiarekin, Emakunderekin, Saileko talde teknikoarekin (STT) (Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza), Berdindu Eskolarekin eta Eskola Seguruarekin elkarlanean eginiko jarduerak ere izan dira gogoan.

Sailaren asmoa Plan hau diseinatzean hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa Hezkuntza Administrazioaren agendan sartzeta izan zen. Helburua zen Lan Plan honek, nagusiki, helburuak eta jarduketak zehaztea, Hezkuntza Administrazioaren zerbitzu estrategikoetarako –Hezkuntza Ikuskaritza, Berritzeguneak, ISEI-IVEI eta Berrikuntza Zuzendaritza– eta, ondoren, gure erkidegoko ikastetxe guztietan zehaztea eta garatzea. Hori dela eta, 150 ikastetxe publikotan eta 50 itundutan eta hezkidetzako proiektu integrala duten 10 zentroetan hezkidetzako proiektu bereziak ezartzea proposatu zen, eta Berritzeguneen eta prestakuntza-programen laguntzarekin osatu zen.

Implementación de proyectos específicos coeducativos



I. Planak zenbait erronka aurkezten zituen, besteak beste:

- Hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredua sakon aztertzea, planteamendu integralen bidez.
- Ikasleak orientatzea, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera-aniztasuna errespetatuz eta genero-baldintzapenik gabe.
- Genero-ikuspegia eskola-porrotari aurre egiteko ekimenetan sartzeta, eta hezkuntza jasotzeko eta bertan jarraitzeko eskubidea unibertsala dela ziurtatzea.
- Harreman afektibo-sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko hezte, aniztasun sexualean eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean oinarrituta.
- Eskola-elkarte osoaren atxikimendua lortzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko.

Halaber, hiru helburu estrategiko zehazten dira bertan:



Helburu horiek betetzeko eta beste bederatzi berezi zehazteko, 100 jarduketa proposatu ziren, eragin eta izaera oso desberdinekoak, eta hiru ikasturte. Nahiz eta, hasiera batean, Planaren asmoa handiegia izan zitekeela iruditu, planari heltzea eta ikasturte bakoitzaren segimenduaren eta balioespenaren bidez egokitzea erabaki zen.

Lehen helburu estrategikoa eta lau helburu zehatzak (trebakuntza irakasleei eta hezkuntza-komunitateari; koordinazioko irudi eta egituren garapena; langileak hornitzeko prozesuetan gaikuntza sustatzea; eta ekimen eta programekiko koordinazioa) direla eta, honako hau esan daiteke:

- Irakasleen % 60 inguruk oinarritzko sentsibilizazio-prestakuntza jaso du (10 orduko modulua) eta zentroen % 30ek eskola mistoak hezkidetzazko eta genero-indarkeriaren prebentziozko eskola eraldatzeko prozesuak hasteko prestakuntza berezia jaso du.
- 30 plaza eskaini zitzaizkien Berritzeguneetako aholkularitzei eta zonako Berritzeguneen hezkidetzamintegietako parte-hartzaileei, 10 kredituko Hezkidetzan esku-hartzen prestakuntzarako (UPV/EHUK eman zuen).
- Zentroen % 87,5ek hezkidetzarduradun bat du izendatuta eta % 75ek berdintasun-ordezkaria izendatu du Ordezkaritza Goreneko Organoan.
- Berritzeguneen zonako mintegietan parte hartzen duten ia zentro guztietan jarri dira abian berdintasuneko edo hezkidetzako batzorde mistoak, edo bizikidetzaren behatokiak genero-ikuspegiarekin.

- Erakunde-eremuan, Sailaren zerbitzu estrategiko bakoitzean (Berritzeguneak, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza, Hezkuntzako Ikuskaritza, ISEI-IVEI...) hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioko arduradunak izendatzeko konpromisoa bete da. Baina, oraingoz, ez du aldaketarik ekarri lanpostuen zerrendetan administrazio-erakunde batzuetan.

Bigarren helburu estrategikoaren garapena hiru helburu zehatzek ezartzen zuten. Lehenengo helburua dela eta, "genero-ikuspegia sustatzea zentroetako kultura, politika eta praktikan", aipatu behar da *abenduaren 22ko 236/2015 DEKRETUAK (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena)* eta *irailaren 6ko 127/2016 DEKRETUAK (Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa)* hezkidetzako eskola-eredua aipatzen dutela, curriculumeko arlo eta gaietan jaso beharreko helburu zehatzekin. Ildo beretik, 236/2015 Dekretu horren 30.4. artikulua bereziki ezartzen du hezkuntza-arloan eskumena duen sailak sustatutako prestakuntza-ekintzen bereizgarri izango dela, besteak beste, "hezkidetzako eta aniztasun afektibo eta sexuala sustatzeko hezkuntza inklusiboa garatzeko eta behar bereziak eta hezkuntza-laguntzarako behar zehatzak dituzten kolektiboek arreta egokia emateko profesionalak prestatzea".

Era berean, Lehen Hezkuntzako eta DBHko zentroetarako Diagnostikoaren Ebaluazioan zuzendaritza-taldeei zuzendutako galde-sortarekin bat etorritik (ED15) –Lehen Hezkuntzako 448 zuzendarik eta DBHko 258k parte hartu zuten–:

- DBHko zentroen % 71,7k berdintasuna eta sexismoa detektatzea jaso du bere prestakuntza-planetan, % 69,4k genero-indarkeria detektatzea eta prebenitzea eta % 46 inguruk sexu-aniztasuna.
- Lehen Hezkuntzako zentroak direla eta, % 61,2k berdintasunaren eta sexismoaren detekzioaren inguruko prestakuntza jasotzen jardun du eta, neurri txikiagoan, gainerako gaien inguruan (% 40,2k genero-indarkerian eta % 34,2k sexu-aniztasunean).
- 2014-2015 ikasturteko eta hurrengoetan Bigarren Hezkuntzako zentroen Urteko Planetan, batik bat, hezkuntza afektibo-sexualeko jarduerak jaso dira. Sarritan, zentroek kanpo-erakundeei esleitzen dizkiete hezkuntza afektibo-sexualeko jardueren garapena, zenbait planteamenduren bidez, eta horiei jarraipena ematea zaila izaten da. Eta, neurri txikiagoan, curriculumean emakumeen jakituria sartzea jaso dute.
- Lehen Hezkuntzako zentroen % 68ren Zentroko Urteko Planek, batik bat, testu-liburu ez-baztertzailerekin zerikusia duten alderdiak jaso dituzte eta, neurri txikiagoan, curriculumean emakumeen jakituria sartzea.

Bigarren helburu zehatza dela eta, tutoretza- eta orientazio-planen sustapenari buruzkoa, Curriculumari buruzko 236/2015 Dekretuak dakar Oinarrizko Hezkuntzako maila guztietako tutoretzetan eguneroko bizi-tzarekin eta genero-indarkeria prebenitzearekin zerikusia duten gai guztiei heldu behar zaiela.

Baina, ikastetxeetan ez da genero-indarkeria prebenitzeari eta hari heltzeari buruzko hirugarren helburu estrategikoaren garapen- eta betearazpen-maila bera bete. Azken urteotan gizartean oro har gertatu den bezala, aurrerapen handiak izan dira berdintasunaren arloan, baina oraindik asko dago egiteko, bereziki harremanen eremuan eta indarkeriaren prebentzioaren eremuan. Horretarako, hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa eta lankidetzako behar da.

Edozein indarkeria-motaren aurrean beti erantzuteko beharraren inguruan adostasun zabala dagu, elkarre gisa, talde edo klase gisa eta banaka erantzutea. Ondorioz, hezkuntza-komunitatearen eguneroko bizitzan lan integrala eta integratua planteatu behar da, estamentu guztien lankidetzarekin.

Hori horrela, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa dela eta, Emakunderen *Beldur Barik* eta *Nahiko* programak nabarmendu behar dira, eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak Hezkuntza Sailarekin batera prestatutako *Berdingu Eskolak* programa. Halaber aipatzekoak dira aldundi eta udaletatik eskolei eskaintzen zaizkien ekimenak, ahalduntze-eskola feministak... Horiek zonako Berritzeguneek antolatutako hezkidetzako mintegietatik eginiko lana aberastu dute.

Egindako ebaluazioa aintzat hartuta, honako hauen inguruan lanean jarraitzea proposatzen da:

- Erakunde-mailan eta zentro-mailan hezkuntza-organo arduradunetan egiturak sortzea, eta sorrera egonkorra izatea.
- Komunitate hezitzailearen eta Hezkuntza Sailaren zerbitzuen prestakuntza.
- Zentroetan hezkidetzaproiektuak garatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari indarreko Erakundeen arteko Akordioan ezartzen denarekin bat etorritik heldzea (gaur egun etxearen eremuan tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeen arreta hobetzeko erakundeen arteko II. Akordioa).
- Ebaluazio sistematikoa eta zorrotza egitea eta planean jasotako neurrien ezarpenari buruzko datuak eta eragina jasotzea.

1.3. Egungo egoera: diagnostikoa

Emakume eta gizonen berdintasuna

Berdintasuna bermatzeko eta, hezkuntza-eremuan ere, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta harekin amaitzeko legeak, planak eta erakunde-programak daude.

Bestalde, emakumeek lan-merkatuan gehiago parte hartzeak, hezkuntza-maila guztietan eta kulturen sarbidea izateak eta bizitza publikoaren beste eremu batzuetan ere sarbidea izateak pentsarazten digu emakume eta gizonen berdintasunaren alde urrats garrantzitsuak ematen ari garela.

Hala ere, azterlan askok eta eguneroko ebidentziak gero eta argiago uzten dute oraindik bidea dagoela egiteko, **berdintasunerako bidean, eta bizitza-proiektuek generoari lotuta jarraitzen dutela.**

Enpleguari buruzko datuek, **soldata-arrakalari**⁴ buruzkoek, emakumeek ekonomia-, kultura-, zientzia-arloetako erabakien eremuetan duten presentzia baxuak buruzkoek, partaidetza soziopolitiko baxuaren datuek, etxeko eta zaintzako lanaren inguruan dagoen banaketa desorekatuari buruzkoek, emakumeen aurka baliatzen den indarkeriari buruzkoek, pobrezia buruzkoek eta beste hainbatek erakusten dute, oraindik ere, defizit soziala dagoela berdintasunaren arloan. Gainera, azterlanek ohartarazten dute balio sexistek gazteen artean irauten dutela eta, sarritan, konturatu gabe gertatzen direla.

4 Eusko Jaurlaritzak. Euskadin soldata-arrakala murrizteko ekintzarako estrategia eta plan operatiboa. 2018

Hezkuntza-eremuan ere, emakume eta gizonen aukera-berdintasuna lortu dela antzematen da. Ideia hori sendotu egiten da nesken emaitzak handiagoak direla ikustean, etapa guztietan beren eskola-errendimendua hobe dela eta eskolan porrot egiteko eta hura uzteko tasa txikiagoa dela ikustean.

Horrela, 2016-2017 ikasturtean, 18 eta 24 urte bitartean EAEn hezkuntza eta prestakuntza **goizetik utzi zuten** pertsonen ehunekoa % 7⁵koa izan zen (Europar Batasunean, EB-28n, % 10,6koa), baina neskak batez besteko horren azpitik izan ziren, 2,9 puntu azpitik (% 5) eta emakumeen tasa mutilena baino nabarmen txikiagoa izan zen (% 10,7)⁶. Gainera, hezkuntza-maila guztietan, emakumezko ikasleek gizonetzkoen errepikatze-tasa baino baxuagoa dute. Unibertsitatera sartzeko probak gainditu zituzten emakumeen ehunekoa 2016an handiagoa izan zen lurralde historiko guztietan, eta emakumeen batez besteko nota gizonena baino pixka bat altuagoa izan zen (0,3 puntuko aldea)⁷.

Baina datu batzuek badirudi genero-eredu batzuk uzten dituztela agerian errendimenduan, zenbait gaitasuni dagokienez. *PISA programaren* azken emaitzekin bat etorritik, neskek mutilek baino puntuazio hobe bat lortu dute irakurmenean, baina kontrakoa gertatzen da zientzia-gaitasunean eta matematika-gaitasunean⁸, eta horrek, gerora, eragina du prestakuntza-ibilbidea hautatzean.

Zenbait prestakuntza-ibilbide hautatzean, berdintasuna inolaz ere ekarriko ez duen errealitatea antzematen da, non aurrerapenak txikiak izaten ari baitira. Oraindik ez da hainbeste emakume sartzen zientzia- eta teknologia-espezialitateetan, eta gizonek jarraitzen dute gehiengoa izaten tradizioan gizonetzko adartzat jo izan direnetan; horrela, bada, beste eremu batzuetan duten presentzia minimoa da.

Era berean, diferentziazio horrek jarraitzen du DBH amaitu ondoren; bertan, emakume gazteek partaidetza handiagoa dute Batxilergoan eta Unibertsitatean (2015-2016 ikasturtean neskak unibertsitateko ikasleen % 52,7 izan ziren), eta gizon gazteek partaidetza handiagoa dute Maila Ertaineko Lanbide Heziketan (ikasturte horretan mutilak % 65,4 izan ziren) eta Goi Mailako Lanbide Heziketan (emakumeen presentzia baxuagoa izan zen, % 37,6koa)⁹.



5 EMAKUNDE. Zifrak Txostena. Emakumeak eta gizonak Euskadin. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2017

6 Ibid.

7 Ibid.

8 ISEI-IVEI. Pisa 2015 Euskadi. Emaitzen txostena. Bilbo: ISEI-IVEI, 2017.

9 EMAKUNDE. Berdintasunaren balioak duen eragina Euskadiko batxilergoko 2. urteko ikasleek goi-mailako ikasketak hautatzerakoan. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2016.

Era berean, Batxilergoan¹⁰ mutilek batik bat Zientzien modalitatea aukeratzen dute (mutilak 2013-2014 ikasturtean 2. mailako ikasle guztien %54 izan ziren); neskak gehiengoa dira Giza Zientzien eta Gizarte Zientzien modalitateekin lotura duten aukeretan (%59,6).

Aukera horiek baldintzatu egiten dituzte ondoren unibertsitate-graduak eta Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak aukeratzeko orduan, eta, horrela, arlo batzuetan emakumeen edo gizonen nagusitasunak nabarmena izaten jarraitzen du. 2015-2016 ikasturtean, lau lanbide-arlo (Ostalaritza eta Turismoa, Kimika, Merkataritza eta Marketina eta Arte Grafikoak), Goi Mailako LHko ikasle guztien %13,7 izan zutenek, emakumezko eta gizonzko ikasle-proportzio orekatua izan zuten¹¹.

Arreta berezia eskaini behar zaio **genero-arrakalari eremu teknologikoan**. Esaterako, 2015-2016 ikasturtean, Ingeniaritza eta Arkitektura arloko unibertsitate-ikasleen % 71,8 mutila izan zen eta Elektrizitatea eta Elektronika, Mantentze-lanak eta ekoizpenerako Zerbitzuak, Informatika eta Komunikazioak arloetan matrikulatutako Goi Mailako Gradu Lanbide Heziketako ikasleen % 80 ere mutila izan zen. Urte horretan bertan, ordea, Haur Hezkuntzako, Erizaintzako eta Gizarte Laneko graduatan % 12,4, % 17,1 eta % 23,5 baino ez zen izan mutila, hurrenez hurren, matrikulatutako pertsonetan¹².

Datu horiek ezagueraren dimentsioan EAEn arrakala handiena duen Genero Bertintasunaren Indizeko¹³ osagaietako batekin daude lotuta: "ikasketa-eremuaren arabera bereizketa". XI. Legegintzaldirako Gobernu Planean¹⁴, herrialdeko helburu gisa EAEko emakume eta gizonen artean Europako beste herrialde batzuen aldean dauden desparekotasunak neurtzen dituen indize horren posizioa hobetzea ezartzen da. 2015eko datuen arabera, gure erkidegoaren indizea Suediaren, Danimarkaren, Finlandiaren, Herbehereen, Frantziaren, Erresuma Batuen, Belgikaren eta Irlandaren atzetik dago, baina Europar Batasuneko gainerako 20 kideen aurretik, bai eta Europako batez bestekoaren aurretik ere.

Emakundek 2016an argitaratu zuen azterlan batek¹⁵ dakar ikasleek diotela ikasketetarako hautaketa bereizi horren arrazoia dela pertsona bakoitza libre dela gustuko duen titulazioa edo zaletasunaren arabera aukeratzeko. Azterlan horretan kontsultatu ziren hamar ikasletik zortzik baino pixka bat gehiagok uste dute emakumeek gizonen aukera berak dituztela titulazio bat aukeratzeko orduan eta, beraz, aukera-bertintasunean oinarritutako erabakia dela.

Hala ere, ikerketa askok¹⁶ erakusten dute lanbide teknologiko bat emakume gutxiagok aukeratzen dutela eta mundu zientifikoan/teknikoan emakume gutxiagok lan egiten dutela, eremu horretan emakumeak gizonak baino gutxiago ahalduz, aitortzen eta sustatzen dituzten motibo sozial, kultural eta hezkuntzakoengatik (estereotipoak, sozializazio-prozesuak, genero-rolak, ezkutuko matxismoak...), eta ez gaikuntza gutxiago eta zaletasun gutxiago edo jarduera gutxiago dutelako.

Hori horrela, emakumeek goi-mailako hezkuntzan duten partaidetza handienak eta ikasketen bereizketak lan-merkatuan sartzeko eta parte hartzeko baldintzak zehazten dituzte. 2016ko datuen arabera, EAEn enplegua

10 EMAKUNDE. Bertintasunaren balioak duen eragina Euskadiko batxilergoko 2. urteko ikasleek goi-mailako ikasketak hautatzerakoan. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2016.

11 EMAKUNDE. Zifrak Txostena. Emakumeak eta gizonak Euskadin. Op. cit.

Bi sexu-etako bat ere % 60tik gora eta % 40tik behera ez denean, ikasleen proportzioa orekatua dela ulertzen da.

12 EMAKUNDE. Zifrak Txostena. Emakumeak eta gizonak Euskadin. Op. cit.

13 EUSTAT. Genero-bertintasunaren indizea.

14 EUSKO JAURLARITZA. XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa: 2016-2020.

15 EMAKUNDE. Bertintasunaren balioak duen eragina Euskadiko batxilergoko 2. urteko ikasleek goi-mailako ikasketak hautatzerakoan. Op. cit.

16 EUROPAKO PARLAMENTUA. Women and education in the UE. Estrasburgo: Europako Parlamentua, 2015.

zuten emakumeen % 17,1ek bere prestakuntza-mailatik beherako postua betetzen zuen, eta gain trebakuntzari dagokionez dagoen desoreka hori ehuneko 4 handiagoa da enplegua duten gizonena baino¹⁷.

Emakumeen okupazio-tasa dela eta, gizonen tasatik 8,5 puntu beherago egoten jarraitzen du eta lanaldi partzialeko enpleguaren % 75,7 emakumeek betetzen dute, beraiek baitira ekoizpen- eta ugalketa-lana uztartzeko ezarritako neurriak gehien erabiltzen dituztenak¹⁸.

Nahiz eta azken bi hamarkadetan emakumeen pisu erlatiboak sektore guztietan gora egin duen, lan-merkatuan bereizketa horizontalak jarraitzen du, eta emakumeen batez besteko errenta pertsonala gizonena baino ia 10.000€ baxuagoa da; alde hori adin guztietan ikusten da, eta ikasketa-maila gorabehera¹⁹.

Emakumeen aurkako indarkeria

Indarkeria gizon batzuek baliatzen dute emakumeen kontra, emakumeak izateagatik baino ez, eta hainbat modutara esaten zaio: indarkeria sexista, genero-indarkeria edo emakumeen aurkako indarkeria. Gizonek emakumeen gainean botere-sistema asimetrikoa dutela ulertzen dutelako gertatzen da, generoan oinarritutako bereizketa eragiten duena. Horrela, dokumentu honetan, aurrerantzean, emakumeen aurkako indarkeria terminoa erabiliko dugu, fenomeno hori aipatzean.

II. Plan honek **emakumeen aurkako indarkeriatzat jotzen ditu emakumeentzat kalte edo sufrimendu fisikoak, sexualak, psikologikoak edo ekonomikoak ekar ditzaketen genero-indarkeriazko ekintza guztiak, ekintza horiek gauzatzeko mehatxuak, derrigortzea edo askatasunaz nahierara gabetzea barne, bizitza publikoan zein pribatuan**. Hori guztia, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) eta EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak egiten duen definizioarekin bat etorritik eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmenari jarraikiz (emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena edo Istanbulerako Hitzarmena²⁰).

Gainera, emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpentzat jotzen ditu bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako indarkeria, emakume eta neskatuen aurkako eta edozein eremutako sexu-indarkeria, sexu-abusua, sexu-erasoa eta sexu-jazarpena barne, emakume eta neskatuen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, feminizidioa, ezkontza goiztiarra, itundutako edo derrigortutako ezkontza eta emakumeen osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edozein indarkeria-mota eta EAEn dagokion araudian aurreikusitako edozein.

Biztanle gazteenak kontuan hartuta, dauzkagun azken datuak eta egindako azterlanak aintzat hartuta, asko geratzen da emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko testuingurua izateko.

2017an²¹, EAEn, Ertzaintzak 2.905 emakume erregistratu zituen bikotekidearen edo bikotekide ohiaren erasoaren biktima gisa, beste 804 emakume beren familiako beste gizonen baten indarkeriaren biktima gisa eta 311 emakume familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeriaren biktima gisa. Guztira, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren 4.020 emakume urtebeteko epean (aurreko urtean baino 246 emakume gehiago).

¹⁷ EMAKUNDE. Zifrak Txostena. Emakumeak eta gizonak Euskadin. Op. cit.

¹⁸ Ibid.

¹⁹ Ibid.

²⁰ COUNCIL OF EUROPE. Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena. 2011

²¹ Emakunde. EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoaren analisia eta interpretazioa. 2017ko datu estatistikoak.

Biktimen adina aintzat hartzen bada, esan behar da indarkeria-mota horrek adin guztietako emakumeetan due-la eragina, gazteenak barne. **2017an indarkeria jasan zuten emakumeen %36,78k 30 urte edo gutxiago zituen, eta biktimen ia %10 18 urtetik beherako neskatoa zen.**

2017an, emakume gazteenek jasandako indarkeria-mota nagusia familia-indarkeria izan da (14 urtetik behe-rako biktima adingabeen %68,4 eta 14 eta 17 urte bitartean dituztenen %32,7), eta, ondoren, sexu-indarkeria (indarkeriaren biktimen kasuen %31 14 urtetik beherakoa da eta %35,8 14 eta 17 urte bitartekoa). Bestalde, bi-kotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimen %33,5ek 30 urte edo gutxiago zuen, eta nabarmen-tzekoa da **14 eta 17 urte bitarteko biktima nerabeen %31,4k bikotekidearen edo bikotekide ohiaren erasoja ja-san zuela 2017an. Gainera, aipatu behar da** emakumeen kontrako indarkeriak eraildako emakumeen %21,43k 30 urte edo gutxiago zuela.

Erasotzaileak direla eta, horietako asko gazteak dira. Garrantzitsua da nabarmentzea **indarkeria gauzatu duten hamar gizonetik hiruk (%30) gehienez 30 urte dituztela**, eta zehazki adingabea erasotzaile guztien %3,77 dela (%2,76 2016an).

Erasotzaile gazteenek presentzia berezia dute familia-indarkeriaren eta familia-eremutik kanpoko sexu-indar-keriaren kasuetan:

- Familia-indarkeriaren erasotzaileen artean, 18 urtetik beherakoa %12,61 izan zen.
- Bikotetik kanpoko sexu-indarkeriaren erasotzaileen artean, adingabea %12,98 izan zen eta 30 urtetik beherakoa %52,40.
- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren erasotzaileen %59,10ek 31 eta 50 urte bitartean zuen eta 30 urteko edo gutxiagoko taldea %26,22 izan zen (2016koa baino ehuneko pixka bat handiagoa, ordukoa %23,24 izan zen).

Arriskuan eta ahultasun bereziko egoeran dauden kolektiboak

Bereziki garrantzitsua da garaiz detektatzea arriskuan dauden kolektiboetan, besteak beste emakumeen aur-kako indarkeriaren biktimen seme-alabetan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ume eta nerabeetan eta emakumeen genitalen mutilazioaren arriskuan dauden nesketan eragina izaten ari den indarkeria.

Egungo legeriak **genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak** ere indarkeria horren zuzene-ko biktimatzat jotzen ditu eta, hori horrela, Emakunderen 2017ko Txostenak dakar **bikotekidearen edo bi-kotekide ohiaren indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alaba adingabeak ere biktima direla**. Sarri-tan manipulatzeko dira emakumearen gaineko kontrol horretan, eta etxean indarkeriaren eraginpean egoteak dakartzan ondorio larriak ere jasaten dituzte. Estatuko makroinkestak²² egiaztatzen du ohikoa dela seme-ala-bak **indarkeria-egoeren lekuko izatea**, zehazki indarkeria fisikoa eta/edo sexuala eta/edo bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako beldurra jasan duten eta indarkeriazko gertakarien unean seme-alabak zituzten emakumeen % 63,6k dio seme-alabek indarkeria-egoeraren bat ikusi edo entzun zutela (eta, kasu gehienetan, % 92,5ean, seme-alabak adingabeak zirenean gertatu zen).

Gainera, seme-alaba adingabeak kasu askotan indarkeria-egoeraren bat ikusi edo entzuteaz gainera, **sarritan (kasuen % 64,2) seme-alaba horiek zuzenean jasaten dituzte erasoak**.

22 Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Emakumearen kontrako makroinkesta. 2015

2013an Espainiako Estatuan guztira 6 adingabe biktima hil ziren, 2014an 4, 2015ean 3, 2016an 1 eta 2017an 8.

Emakundek emandako txosten horretan, **desgaitasuna duten emakumeak ere indarkeria-motaren bat jasateko arrisku handiko kolektiboa da**; horrela, nabarmen gainditzen dituzte desgaitasunik ez duten emakumeen tratatu txarren ehunekoak. Horretan zenbait faktore pertsonalek, familiarrek eta sozialek eragiten dute, faktore nagusiari lotuta: emakume izatea. Bereziki ahula da desgaitasun larria duten emakumeen edo ikasteko eta komunikatzeko zailtasunak dituzten emakumeen egoera.

Desgaitasuna duten emakume batzuen mendekotasun-egoerek desgaitasunik ez duten emakumeetan hainbeste antzematen ez diren **indarkeria-motek** ere ematen diete bide, esaterako zaintzari uko egitea edo apalkuntza-egoera larriagoak. Zenbat eta ahultasun handiagoa, erasotzailea orduan eta boteretsuago sentitzen da, eta orduan eta legitimatuago sentitzen da biktimarengan indarkeria ohikoago eta gogorrago gauzatzeko.

Gaixotasun mentala duten emakumeek aipamen berezia egin behar zaie; izan ere, zenbait erakundek eta azterlanek diote gaixotasun mental larria duten eta beren bizitzako uneren batean bikotekidea izan duten emakumeen % 80k indarkeria jasan duela bikotekidearen aldetik eta, indarkeria psikologikoa ohikoena bada ere, indarkeria fisikoa eta sexuala ere ugariak direla: erdiak baino gehiagok indarkeria fisikoa jasan du eta % 40k baino pixka bat gehiagok sexu-indarkeria.

Bestalde, azken hamarkadan, gure erkidegoa beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen migrazio-mugimenduen helmuga bilakatu da; besteak beste, Saharaz hegoaldeko Afrikatik datoz eta, bertan, emakumeen genitalen mutilazioa (EGM)²³ oso errotuta dago. Ondorioz, zenbait kultura-errealitate ezagutu ditugu eta erronka berriei egin behar zaie aurre.

2014an, jatorri horietako 3.680 emakume baino gehiago bizi ziren EAEn; horietatik, 1.018 15 urtetik beherakoak ziren. Arrisku-taldea zen eta azken urteetan nabarmen hazi da²⁴.

EGM²⁵, gorputzaren beraren osasunerako eta osotasunerako eskubidea urratzeaz gainera, oztopo bat da sexualitatearen beraren kontrolean eta sexu- eta ugalketa-eskubideak aske baliatzean.



23 OMEK honela definitzen du: "nahita eta motibo ez-medikoengatik, emakumeen organo genitalak hondatzen edo kaltetzen dituzten prozedura guztiak".

24 OSAKIDETZA, EMAKUNDE ETA EUSKO JAURLARITZA. Emakumeen genitalen mutilazioa. Euskadiko osasun-sisteman gomendatutako jardunen gidaliburua. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2016.

25 EMAKUNDE. Emakumeen genitalen mutilazioa EAEn. Jarduketa profesionalerako oinarritzko printzipioak.

Bestalde, LGTBI kolektiboen bazterketak errealitate izaten jarraitzen du; beraz, administrazio publikoek ahaleginak batu behar dituzte, pertsonen sexu-orientazioa edo genero-identitatea edozein dela ere, aniztasunarekiko errespetua lortzeko.

Eusko Jaurlaritzaren BERDINDU zerbitzuak 2014an argitaratu zuen txostenak dakar EAEko hamar ikaslelik sei baino gehiagok irain edo iseka homofoboak edo lesbofoboak entzun dituztela. Hamarretik hiruk, gutxienez, isolamendua ikusi dutela aitortu dute; hamarretik bi inguru tratu txar fisikoaren lekuko izan dira eta ikasleen % 3 inguruk dio irainak, isekak, isolamendua edo tratu txar fisikoa jasan duela.

Nesken % 84k dio erreakzio positiboa edo normaltasun-erreakzioa izango lukeela, bere sexuko ikaskide neska edo mutil batek sexu bereko pertsonenganako edo bi sexuenganako desioa zabal adieraziko balu. Mutilak deserosoago sentitzen dira sexualitate ez-arauzkoen aurrean, bereziki gizonezkoen aurrean.

Oro har, ikasleek ez dute uste ikastetxea espazio nahiko segurua denik, eta lagun eta adiskideen erreakzioaren aurrean zalantza handia dago, batik bat mutilen kasuan.

Datu horietako asko erreferentzia-adierazletzat edo abiapuntutzat jo daitezke, denboran gizon eta emakumeen berdintasunaren inguruan eta genero-indarkeriaren inguruan hobetu nahi den egoeraren bilakaerari behartzeko. Hori horrela, arreta eskaini behar zaie informazioa batzeko sistemari eta erakundeek, batik bat Hezkuntza Ikuskaritzak eta ISEI-IVEIk, erabilitako irizpideak bateratzeari.

Emakumeen aurkako indarkeriaren modu berriak

Gainera, plan honetan azken urteotan sortzen joan diren indarkeria-motak nabarmendu nahi dira:

Ikasleetan genero-indarkeriaz hitz egitean, indarkeriarako baliatzen diren espazio berrien sorrera aztertu behar da, eremu berriak, non eraso edo xantaia egin, kontrolatu, manipulatu, jazarri edo sexu-erasoa gauzatu nahi duenarentzat presentzia fisikoa izateak arazorik eragiten ez baitu.

Emakumeen aurkako indarkeria EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna inkestak dio bikoiztu egin dela bikoitekidearen aldetik mugikorraren, posta elektronikoaren eta/edo sare sozialeko mugimenduen kontrola bizi izan dutela onartzen duten emakumeen ehunekoa, emakumeen guztizkoari dagokionez, 16 eta 29 urte bitarteko gazteetan.

Zibererasoa, gazteengan genero-indarkeria gauzatzeko modua: informazioaren eta ezagutzaren gizartearen arriskua azterlanaren datuen arabera, neska nerabeen % 25,1ek dio abusuzko kontrola jasan duela mugikorraren bidez. Hamar neskatik sei inguruk irain matxistak jasotzen dituzte mugikorrean eta horietako % 10ek aitortu du mezu horien beldur izan dela.

Oro har ondorioztatzen da gazteek informazio edo irudi pribatuak trukatzek dakartzan ondorioei eta, horrela, edozein pertsonak horiek baliatu ahal izateari ez dietela garrantziarik ematen.

Teknologiak etengabe ari dira aurrera egiten, eta, ondorioz, generoaren ziberindarkeriaren sistematizazioa konplexua eta zaila da zehazteko, hainbat egoera baitaude, besteak beste: sexting bidez eskuratutako irudi edo bideoak argitaratu eta/edo zabaltzea, sextortsioa, grooming-a, revenge porn-a, haur-pornografia, lineako sexu-esplotazioa, salerosketarako emakumeen erakarpena ... Azter ditzagun egoera horietako batzuk, batik bat nerabezeroan gertatzen direnak:

- **Sexting** Sexting-a da telefono mugikorren bidez beste pertsona batzuei eduki sexualak bidaltzea, argazkiak edo bideoak, normalean bidaltzen dituen pertsonak ekoitziak. Ekintza horiek harreman afektiboa edo sexuala duten edo izan duten pertsonen artean izaten dira; harreman hori esfera intimoari zuzenean edo zeharka lotutako motiboengatik sortzen da. Sexting bidez bidalitako eduki horiek baimenik gabe argitaratu eta/edo zabaltzen direnean, Zigor Kodearen 197. artikuluan jaso den delituaz ari gara, nahiz eta bertan izendapen zehatz hori ez izan.
- **Sextortsioa.** Termino honek xantaia bidezko sexu-esplotazioaren modu bati egiten dio erreferentzia; xantaiarako sexting bidez edo webcam bidez biktimarengandik zerbait eskuratzeko lortutako sexu-edukiak erabiltzen ditu baten batek eta horiek argitaratzeko mehatxua egiten du.
- **Grooming edo child-grooming.** Ekintza hau helduek gauzatzen dute, nagusiki gizonek, Internet bidez adingabeekin adiskidetasun-loturak ezartzeko. Limurtzeko estrategia baliatzen dute, harreman horiek bilatzen dituztenen identitatea ezkutuan gordetzen da eta gazteak edo neskak direla esan ohi dute eta, ondoren, harreman hori adingabeen irudi edo bideo erotiko-pornografikoen bitartez sexu-gogobetetasuna eskuratzeko modu edota sexu-topaketarako prestatzeko modu bilakatzen da.
- **Revenge porn.** Interneten sexu-edukia argitaratzea da, biktimaren informazio pertsonalarekin batera, nagusiki emakumeen informazioarekin. Bikote-harremana amaitu ondoren gertatzen da, normalean mutilak berarekin ez jarraitzeagatik baliatutako mendeku gisa, baina sexu-edukia bidegabe jaso duten ezezagunek ere egin dezakete.

Azkenik, argitu behar da gizarte-sareek ez dutela berez genero-indarkeriarik eragiten; ez dira deabrutu behar, izan ere, espazio birtualera inguruneke gizarte-errealitateak baino ez daramatzate, kasu honetan errealtate oso desberdinak nesken eta mutilen artean. Hori horrela, berdintasunean oinarritutako erabilera ez-sexistatzen heztea oso garrantzitsua dela nabarmendu behar da, eta ez ditugu gizarte-sareak espazio arriskutsutzat sailkatu behar, bereziki neskentzako espazio arriskutsutzat; izan ere, berriz ere egongo ginateke beraierengan beldurraren kultura sustatzen.

Oro har ondorioztatzen da gazteek informazio edo irudi pribatuak trukatzeko dakartzan ondorioei eta, horrela, edozein pertsonak horiek baliatu ahal izateari ez dietela garrantziarik ematen.

Beraz, indarkeria gauzatzeko modu berri horietan jarri behar da prebentzioaren eta detekzioaren eta esku-haritzearen fokua.



1.4. Berdintasunaren eta hezkuntzaren arloko erreferentziako esparru juridikoa eta arauemailea

II. Hezkidetza Planaren esparru arauemailea

Hezkuntza da emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko politikari dagokionez gehien araupetutako arloetako bat. Hainbat araudi, gomendio, plan eta abarrek bultzatzen dute hezkuntza-sistema aktiboki lan egitera hezkidetzazko eskola-eredu bat lortzeko. Eskola mistoa gaindituko duen eta pertsonak haien garapen integralari begira heziko dituen ereduak, sexuaren araberrako estereotipoak eta rolak alboratu eta era guztietako bazterkeria eta indarkeria gaitzetsiko dituenak.

Gogoan izan behar da arau-garapena funtsezkoa dela politikari eta hezkuntzan lotutako jardunbideei babesa emateko. Horiek horrela, II. Hezkidetza Planak bat egiten du nazioartean, Europar Batasunean, estatuan eta autonomia-erkidegoan garatutako estrategia eta plan nagusiekin.

Nazioartean **Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda** dugu. Izaera unibertsala duen plana da, munduko herrialde guztiak eraginpean hartzen dituenak. 15 urteko epean (2015-2030) garatu beharreko Garapen Iraunkorrerako 17 Helburu biltzen ditu. 2030 Agendak aurrerakada nabarmena ekartzen du generoaren ikuspegitik. Izan ere, alde batetik, helburu espezifiko gisa jasotzen du *“genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea”*, eta, bestetik, estrategikotzat jotzen ditu genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea.

Europar Batasunari dagokionez, Europako Batzordeak, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Konpromiso Estrategikoan (2016-2021)**, berretsi egiten du emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko lan egin beharra, Europar Batasunaren helburua eta funtsezko balioa baita. Dokumentu horrek lehentasunezko bost arlotan aplikatu behar diren hogeita hamar funtsezko ekintza baino gehiago aipatzen ditu, baita horiek gainbegiratzeko epeak eta adierazleak ere. Gainera, Europar Batasuneko politika guztietan eta Batasunak finantzaturako programetan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegia integratzeko premia azpimarratzen du.

Hezkuntza-esparruko genero-zeharkakotasunari dagokionez, azpimarragarria da **Ministroen Batzordearen CM/Rec (2007) 13 Gomendioa, Europar Batasuneko estatuei zuzendua, hezkuntzan genero-dimentsioa integratzeari buruzkoa**, non Europar Batasuneko estatu guztiei eskatzen baitaie hezkuntza-sistemaren hainbat esparru eta mailatan genero-ikuspegia txertatzeko neurri jakin batzuk har ditzaten.

Estatuan, **Aukera Berdintasunaren Plan Estrategikoak (2018-2021)** helburu estrategikoen artean jasotzen du *emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna hezkuntza-sistemaren bitartez eta ikerketan bultzatzea*, eta bereziki azpimarratzen du irakasleei prestakuntza emateko premia.

Euskal Autonomia Erkidegoan, adierazi beharra dago II. Hezkidetza Plana **XI. Legegintzaldirako Gobernu Programan** jasotako ekimenen artean dagoela, 92. konpromisoaren 2. ekimenean hain zuzen ere. Halaber, II. Hezkidetza Plana lantzeak eta inplementatzeak Gobernu Programaren beste konpromiso eta ekimen batzuk betetzen laguntzen du:

- 145. konpromisoaren 2. ekimena: Hezkuntza-sisteman berdintasunaren sustapena bultzatu, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.
- 147. konpromisoaren 2. ekimena: Emakumeen kontrako biolentzia desagerrarazteko gizarte osoari zuzendutako prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak indartu, batez ere gazteei begira.

Bestalde, **Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Plan Eragilea** bat dator soldata-berdintasunerako eskubidearen eta, ordainsariari dagokionez, emakumeen eta gizonen artean diskriminaziorik ez jasateko eskubidearen inguruan nazioarteko mailan garatu diren estrategia eta plan nagusiekin. Erronka konplexu eta dimentsio anitzekoa da, askotan gure kulturen eta tradizioetan errotuta dauden gaiekin zerikusia duena, eta diziplina anitzeko ikuspegi bateratzaileetatik lantzea eskatzen du, gizarte- eta politika- talde eta indar guztien arduraz, ahaztu gabe erakundeek horretan esku hartu behar dutela, emakumeen eta gizonen arteko soldata-aldearen fenomenoak murrizte aldera. Ilde horretan, II. Hezkidetza Plana koherentea da estrategia horrekin, eta Euskadin soldata-arrakala murrizteko Plan Eragilearen gidalerro eta neurri hauei buruzko jardun batzuk jasotzen ditu:

=	GIDALERROA	NEURRIA
	1.3. Bokazio-orientaziorako jarduera indartzea eta hobetzea, EAEko gazteek karrera profesionala informazio gehiago izanda eta genero-estereotiporik gabe aukera dezaten.	1.3.1. Bokazio-orientazio ez sexistaren inguruan prestakuntza espezifikoak, hezkuntza-orientatzaileentzat.
	1.4. Pizgarriak eskaintzea ikasketa tekniko eta teknologikoetan emakume gehiago sartzeko.	1.4.2. Bokazio zientifiko-teknikoak eta asmo profesionalak sustatzea – STEAM Euskadi Hezkuntza Estrategia.
	3.1. Haurtzarotik berdintasunean oinarritutako hezkuntza sustatzea.	3.1.1. Deialdiak, funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxeetan hezkidetza-proiektuak diseinatzeko.
		3.1.2. Hezkidetza Plan Gidaria.
		3.1.3. Irakasleen kompetentzia-profilen prestakuntza etengabea, hezkidetza-ereduen arabera.

Gogorarazi beharra dago, azkenik, II. Hezkidetza Plan hau bat datorrela Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 19an onartu zuen **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak** ezarritako orientabideekin, eta, zehazki, 3.2 helburu estrategikoari erantzuten dio: “*Herritartasun-eskubideak erabiltzea bultzatzea, hezkidetzaren bidez*”. Horretarako, 3 helburu operatibo ezartzen dira:

=	3.2 helburu estrategikoa: “Herritartasun-eskubideak erabiltzea bultzatzea, hezkidetzaren bidez”.
	3.2.1. Beren kulturen, politikan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txertatzen duten hezkidetzako ikastetxeen kopurua handitzea.
	3.2.2. Bizitzan, ikasketetan eta lanean izango duten ibilbidea aukera-aniztasunetik eta genero-baldintzapenik gabe aukeratzen duten ikasleen kopurua handitzea.
	3.2.3. Hezkuntza-sistema egituraz, pertsonaz eta programaz hornitzea, hezkidetzan oinarritutako eskolaren ereduak modu koordinatuan sustatzeko.

II. Hezkidetza Plan honen bitartez, halaber, VII. Planaren hirugarren ardatzean (“Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak”) ezarritako 6. programan eta 7. programan jasotako **helburuak** erdiestera zuzendutako neurriak ezartzen dira, hots, **sentsibilizazioa eta prebentzioa, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen kaltea hautematea, arreta ematea eta konpontzea**, hurrenez hurren.

Bestalde, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Hezkuntza Sailaren XI. Legegintzaldirako Programa Dokumentua** VII. Planak ezarritako esku hartzeko ildoak eta gidalerroak erantzuten dien dokumentua da eta *II. Hezkidetza Plana lantzea eta inplementatzea* jasotzen du legegintzaldi honetarako Hezkuntza Sailaren lehentasuneko helburu estrategikoen artean.

Adierazi beharra dago, alabaina, hezkidetzako eskolarantzko bidean, ikastetxeetan berdintasuna bultzatzera zuzendutako jardunek gain, hezkuntza-administrazioko jardueran genero-ikuspegia sartzera zuzendutako jardunak ere beharrezkoak direla. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Hezkuntza Sailaren XI. Legegintzaldirako Programa Dokumentuan eta sailaren beraren berdintasun politikak ezartzeko plangintza jasotzen duten urteko planetan bilduta geratzen dira jardun horiek.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteari dagokionez, adierazi beharra dago **Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko erakundeen arteko II. Akordioan** parte hartzen duela Hezkuntza Sailak 2009. urteaz geroztik. Akordio horren xedea da jarduteko jarraibide homogeneousak ezartzea eta EAEn indarkeriaren alorrean esku hartzen duten erakundeen esku-hartzea protokolizatzea. II. Hezkidetza Planak gai honetan akordio horrek ezartzen duen lan-ikusmoldea bermatzen du eta akordio horretan bidezkoztat jotzen diren jardunak bilduko ditu.

EAEko hezkuntza-sisteman BERDINTASUNA erregulatzen duen araudia

Zenbait dira EAEko hezkuntza-sistemaren funtzionamendua erregulatzen duten arauak:



Esparru juridikoa hezkuntza-eremuan

- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa; lege honek aldatua: 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.
- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko.
- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Bestalde, botere publikoen jarduna, berdintasunari dagokionez, zenbait arautan jasota dago:



Esparru juridikoa berdintasun-politiken eremuan

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.
- Etxeko tratatu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa. Euskal Autonomia Erkidegoa (2009).
- Ministroen Batzordearen CM/Rec (2007) 13 Gomendioa, Europar Batasuneko estatuei zuzendua, hezkuntzan genero-dimentsioa integratzeari buruzkoa.
- 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.
- Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna (2017).

1/1993 Legeak, otsailaren 19koak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, honela definitzen du 3. artikuluko 1. zenbakian: *“anitz, elebiduna, demokratikoa da, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzakoa, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitateen bateratzailea”*. Baina, gainera, bere xedeen artean dago *“ematen den heziketaren hezkidetasuna ziurtatzea”*.

Bestalde, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, Eusko Legebiltzarrak onartuak, hezkuntza-sistemak berdintasunean duen eginkizun protagonista ezagutzen du. Hala, III. tituluan hezkuntzaren esku hartzeko arloko berdintasunera zuzendutako neurriak aztergai dituen kapitulu oso bat jasotzen du, unibertsitateko zein unibertsitateaz kanpoko hezkuntza aztertzen duena. Baina, 4/2005 Legeaz gain, hezkuntza-arloan berdintasuna sustatzeko araudi-esparru zabala dago: bai berdintasunaren inguruko berriarazko araudia —hezkuntza-administrazioek beren politiketan emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak garatzeko artikuluek osatua—, bai sektoreko araudia; hau da, hezkuntzaren arloko berriarazko araudia, gai horretan bete beharreko mandatuak jasotzen dituen.

Hezkuntza-sistemaren esparruak BERDINTASUNAREN ikuspegitik

4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, hezkuntza-sistema premiatzen du hezkidetzaren eredu bat garatzera. Zehazki, honako hau adierazten du: *“Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrean”*.

a. Curriculumaren edukia

Curriculumari dagokionez, otsailaren 18ko **4/2005 Legeak** 29. artikuluan jasotzen duenez, “Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta jarraian aipatzen diren hezkidetzak-helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean:

- a) Emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritzi, estereotipo eta rolak ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.
- b) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, eta irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.
- c) Beharrezko ezagutzak sartzeko, neska-mutil ikasleek, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla eta, gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrian eta erantzukizunen ardura har dezaten.
- d) Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.
- e) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak ere”.

Halaber, legeak jasotzen duenez, “Hezkuntza Administrazioak oinarritzeko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketaekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak ikastearekin”.



Curriculumean genero-ikuspegia txertatzea erregulatzen duten arauak

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako: 29. artikulua.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriak: 24. artikulua.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriak buruzkoa: 4. artikulua.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (lege honek aldatua: 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko): 17. eta 23. artikulua eta hogeita bosgarren xedapen gehigarria.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (2018).

b. Material didaktikoak

Otsailaren 18ko **4/2005 Legeak** 30. artikuluan honako hau adierazten du material didaktikoei dagokienez:

“Debeku da pertsonen, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen testu-liburu edo irakaskuntzako material oro zabaldu eta erabiltzea Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo ho-

rretara bultzatzen duen oro ere". Orobat, "Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuak eta irakaskuntzako beste material guztiek (...) hezkidetzako helburuak barneratuta izan behar dituzte. Bestalde, ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatu behar dute".



Material didaktikoak erregulatzen dituzten arauak

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: 30. artikulua.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa: 24. artikulua.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa: 6. artikulua.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (lege honek aldatua: 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzekoa): laugarren xedapen gehigarria.

c. Hezkuntza-sistemako pertsonak eta koordinazio-egiturak

Hezkuntza-sistemako profesionalen erregulazioari dagokionez, beste zenbait gairen artean, hezkuntza-sistemako langileek hezkidetzaren arloko kualifikazioa izan behar dutela adierazten du araudiak.

Hala, Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 31. artikuluan honako hau adierazten du: "*Beren zereginetan genero-ikuspia integratzeko, hezkidetzan trebakuntza zehatza jaso duten langileak izango dira hezkuntzaren arloa ebaluatu, ikertu eta berritzeaz arduratzen diren organoetan eta irakasleen laguntzarako zerbitzuetan*".

Gainera, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 4. zenbakiak, 31. artikuluari loturik, honako hau adierazten du: "*Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, hezkuntza ebaluatu, ikertu eta berritzatzeko ardura duten organoen eta irakasleei laguntzeko zerbitzuen lanpostu zerrenda aldatzeko behar diren administrazio-prozedurak hasiko dituzte; horretarako, hezkidetzaren arloko gaikuntza behar duten plaze-tarako beharkizun bereziak txertatuko dira*".

Ordezkaritza-organismo gorenak bezalako beste egitura batzuei dagokienez, **1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak**, honako hau ezartzen du **8. artikuluan**: "*Beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, ziurtatzeko eskola-kontseiluek bultzatzen dutela hezkuntza-neurriak hartzea gizonen eta emakumeen artean benetakoa eta eragingarria den berdintasuna, suspertzeko. Xede berarekin, Estatuaren Eskola Kontseiluan ziurtatuko da ordezkatuta izatea Emakumearen Institutua eta, nazio-lurralde guztian sustraituta izanik, emakumeen interesak defendatzen dituzten erakundeak*".

Geroztik, **8/2013 Lege Organikoak, abenduaren 9koak, hezkuntzaren kalitatea hobetzekoak**, ikastetxeetako berdintasun-ordezkarien figura arautzen du 126²⁶ eta 127²⁷ artikuluetan.

Berdintasunaren arloko araudiak erregulatzen duen beste alderdi bat emakumezko eta gizonezko irakasleen presentzia orekatua da. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 31.2 artikulua honako hau ezartzen du:

26 126.2 artikulua. "Ikastetxearen Eskola Kontseilua eratu ondoren, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatuko duten hezkuntza-neurriak bultzatzeko pertsona bat izendatuko du".

27 127.g) artikulua. Eskola-kontseiluaren eskumena izango da: "Ikastetxeko elkarbizitza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, tratu-berdintasuna, lege organiko honetako 84.3 artikulua aipatzen dituen arrazoiengatik bazterkeriarik eza, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta genero-indarkeria saihestea bultzatzen duten neurriak eta ekimenak proposatzea".

“Hezkuntza Administrazioak zera bultzatuko du: emakume zein gizon irakasleek presentzia orekatua izan dezatela jakintza-arlo eta hezkuntzako etapa ezberdinetan, eta halaber ikastetxeen zuzendaritza-organoetan”.



Pertsonak eta koordinazio-egiturak erregulatzen dituzten arauak

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: 31. artikulua.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearen arteko II. Akordioa. Euskal Autonomia Erkidegoa (2009).
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa: 24. artikulua.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa: 8. artikulua.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (lege honek aldatua: 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko): 126. eta 127. artikulua.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (2018).

e. Prestakuntza

Prestakuntzari dagokionez, **4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak**, honako hau adierazten du 32. artikuluan: *“Hezkuntza Administrazioak hezkidetzari buruzko prestakuntza-planak jarriko ditu abian; plan horiek irakaskuntzako profesionalei zuzenduta egongo dira, eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztiak hartuko dituzte beren baitan”.*

Ikastetxeetako prestakuntzari dagokionez, lege berak honako hau xedatzen du: *“Ikastetxe bakoitzak prestakuntza-plan horiek abian jartzerakoan neurri egokiak ezar ditzan, Hezkuntza Administrazioak beharrezko egokitzapenak egingo ditu ordutegian eta antolaketan. Gainera, mekanismoak ezarriko dira plan horietan aurreikusi diren egutegi eta ordutegiek afektatutako ikasleei erantzuteko”.*

Irakasleen etengabeko prestakuntzari dagokionez, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, honako hau xedatzen du: *“Irakaskuntzako profesionalei —banaka zein ikastetxeen bidez— zuzentzen zaien etengabeko prestakuntzarako eskaintzak, bere edukietan, zeharka, hezkidetzako filosofia barneratu behar du, eta, horrezaz gain, hezkidetzari buruzko ikastaro zehatzak jaso behar ditu”.*



Prestakuntza erregulatzen duten arauak

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: 32. artikulua.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa: 24. artikulua.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa: 7. artikulua.
- Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna (2017).

f. Hezkuntza-ikuskatzaitzaren eginkizuna

4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, eta 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, Hezkuntzari buruzkoak, ikastetxeek berdintasuna bultzatzeko hartzen dituzten neurrien jarraipena egiteko erantzukizuna ematen diete hezkuntza-ikuskatzaitzako zerbitzuei.

1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, bestalde, honako hau ezartzen du 9. artikuluan: *“Hezkuntza-ikuskatzaitzaren zerbitzuek zainduko dute kapitulu honetan jasotako printzipio eta balioak aplikatzea hezkuntza-sisteman, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna suspertzeko”*.



Hezkuntza-ikuskatzaitzaren eginkizuna erregulatzen duten arauak

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa: 9. artikulua.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (lege honek aldatua: 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzekoa): 151. artikulua.
- Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna (2017).

g. Genero-indarkeria detektatzea eta haren aurrean jardutea

Berdintasunaren arloko araudiak erregulatu du batez ere hezkuntza-komunitateak nola jardun behar duen genero-indarkeriako kasuren bat detektatzen duenean.

Illo horretan, **4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak**, honako hau xedatzen du 31. artikuluan: *“Irakasleek ikastetxeen zuzendaritza-organoei jakitera eman behar diete emakumeen eta neskato-mutikoen aurka nabaritzen duten indarkeria-zantzu oro”*.

Illo berean, Hezkuntza Sailak 2009. urteaz geroztik parte hartzen duen **Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobia egiteko erakundearen arteko II. Akordioak** hezkuntza-esparruan jarduteko protokoloa jasotzen du, hezkuntza-komunitateak etxeko tratu txarren eta/edo sexu-erasoen aurrean nola jardun behar duen definitzen duena.

Genero-indarkeriako ekintzen ondorioz bizilekua aldatu behar duten adingabeei dagokienez, 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, honako hau ezartzen du 5. artikuluan: *“Administrazio eskudunek berehalako eskolatzea ezarri beharko dute, genero-indarkeriazko egitateen ondorioz bizilekua aldatu behar denean, eta horrek seme-alabengan ondorioak dituen”*.

Gainera, 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, Hezkuntzari buruzkoak (lege honek aldatua: 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzekoa), honako hau adierazten du hogeita batgarren xedapen gehigarrian: *“Genero-indarkeriako ekintzen edo eskola-jazarpenaren ondorioz ikastetxez aldatu behar duten ikasleen berehalako eskolatzea ziurtatuko dute hezkuntza-administrazioek. Halaber, ikastetxeek ikasle horiei arreta berezia eskaintzeko aukera erraztuko dute”*.




Genero-indarkeria detektatzearekin eta haren aurrean jardutearekin erlazio-natutako alderdiak erregulatzen dituzten arauak

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa: 5. artikulua.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (lege honek aldatua: 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko): hogeita batgarren xedapen gehigarria.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko erakundeen arteko II. Akordioa. Euskal Autonomia Erkidegoa (2009).
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (2018).
- Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna (2017).

Jarduteko protokoloak eta gidak

Gai horien inguruan eta erakunde-mailan, azken lau urte hauetan hainbat gida edo protokolo landu dira, kasuak prebenitzeko eta horien aurrean nola jardun behar den jakiteko funtsezko helburuarekin. Hona hemen adibide batzuk:

- Hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko protokoloa, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku-hartzen duten eragileen arteko lankidetzarako eta koordinazioarako protokoloa (2016).
- Ikasle transexualei edo arauz kanpoko genero-portaera dutenei eta haien familiei laguntzeko ikaste-txeentzako protokoloa (2016).
- Pertsona transexualei arreta integrala emateko gida. Hezkuntzaren, gizartearen eta osasunaren esparruetatik gomendatutako jardunak. Pertsona transexualen arreta integrala lantzeko lantaldea (2016).
- Emakumeen Genitalen Mutilazioa, EAEn. Profesionalaren oinarrizko printzipioak (2016) (EMAKUNDE).
- Emakumeen Genitalen Mutilazioa. Euskadiko Osasun Sisteman gomendatutako jardunen gidaliburua (2016) (EMAKUNDE, Osakidetza).
- Emakumeen genitalen mutilazioari aurrea hartzea, hezkuntza-esparruan (EMAKUNDE eta Hezkuntza Saila).



2. NAHI DUGUN ESKOLA. BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN



Heziberriren esparru pedagogikoan formulatzen diren **hezkuntza-oinarrietako** batek ezartzen duenez, *Oinarrizko Hezkuntzak hezkuntza-eskubidea bermatu behar die pertsona guztiei; beraz, zuzentasun eta justizia sozialaren planteamendu etiko batetik, hezkuntzak aukera-berdintasuna eskaini behar du, inolako bazterketarik gabe, eta konpentsatu egin behar ditu desberdintasun ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta pertsonalak. Oinarri horren arabera, bai Administrazioak eta hezkuntza-arduradunek bai hezkuntza-komunitateko profesionalek eta partaide guztiek bultzatuko dute inklusioa, hau da, hezkuntza barneratzailea eta pertsonalizatua, oinarrizko eta derrigorrezko hezkuntza amaitu arte. Horrekin batera, modu osagarrian, hezkuntza-sistemak erronkatzat hartu behar du ahalik eta ikasle gehienak bikaintasunera eramatea*²⁸.

Bestalde, **Hezkuntzaren xedeen** artean adierazten da:

- b)** *Pertsonaren garapen integrala, maila guztietan: garapen fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala, kulturala, morala, afektiboa nahiz emozionala, estetikoa eta espirituala.*

Esparru arauemailean ezarritakoa bermatzeko ekimen integrala behar da oinarrizko hezkuntzan, ulertuta **hezkidetza** zeharkako elementu positiboa dela mutilentzat zein neskentzat, berdintasuneko hezkuntzaren garapena eta, aldi berean, genero-indarkeriaren prebentzioa bermatzen baititu.

Hezkidetza defini dezakegu, gaingiroki, **neska eta mutilen arteko berdintasuna modu espezifikoan eta aldi berean zeharkako ardatz gisa txertatzea bereizgarri duen hezkuntza gisa**. Hezkidetza-eskolaren maisu handietako batek, M^a José Urruzolak, honela definitu zuen: «neska-mutilak genero femeninoa edo maskulinoa alde batera utzita hezten dituen, hots, sexu-desberdintasunetik abiatuta hezten dituen, beren banakotasunaren garapena bultzatuta, baina gizarte sexista batetik sexu batekoa edo bestekoa izateagatik betetzeko eskatzen zaizkien rola kontuan izan gabe» (1995: 267).

Simonek (2000) eta Subiratsek (2010) ere defendatzen duten moduan, hezkidetza ez da eskola mistoaren sinonimotzat ulertu behar. Hezkuntza mistoa prestakuntza-espazio berean neskak eta mutilak txertatzen dituen aldi berean, batzuentzat zein besteentzat curriculum-eredu bera planteatzen duen hezkuntza-ereduari dagokio. Espazio bera eta curriculum bera partekatzeak ez du esan nahi «berdintasunean» eta «berdintasunerako» hezten denik.

Emakumeen eta gizonen arteko eskubideen, aukeren, betebeharren, lanaren... berdintasuna helburu duen hezkuntza-eredua da hezkidetza (Luixa Reizabal, 2016). Desberdintasunetatik abiatuta berdintasunean heztea da, oso xede garbiarekin: **etiketarik gabeko mundua eraikitzea, non emakumeak eta gizonak maila berean egongo baitira, beren eskubide eta askatasunekin (Amelia Barquín, 2016).**

Hezkuntza-sistemako desparekotasunaren adibide ohikoena androzentrismoa da. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, «munduari eta gizarte-harremanei gizonaren (eta ez gizon-emakumeen) ikuspuntutik begiratzea» da androzentrismoa. Definizio hori hezkuntza-sistemara eramanda, maskulinoa ikaskuntza-foku nagusi gisa kokatzen duen hezkuntza alboratuan hezurmamitzen da androzentrismoa. Hizkuntza sexistaren bitartez, emakumeak eta haien ekarpen historikoa ikusezin bihurtuta, hezkuntza-sistemaren barruan erantzukizuneko lanpostuak emakumeen eta gizonen artean modu desorekatuan banatuta, ikastetxeen barruan aisia-espazioetan kirol «maskulinizatuak» ezarrita, eta beste hainbat modutan. Androzentrismoa, gainera, sexismo-moldea den aldetik, askoz ere sotilagoa da eskola mistoan, genero-berdintasuna inplizitu daramala uste baita.

²⁸ Heziberri 2020. Hezkuntza eredu pedagogikoaren esparrua.

Eskola androzentrikoak ez du «berdintasunean» eta «berdintasunerako» hezten; aitzitik, «desparekotasunean» eta «desparekotasunerako» hezten du ohartuki edo oharkabeen. Marina Subiratsek (2010) defendatzen duen moduan, daukagun eskola mistoak ez die konponbiderik eman gure gizarteak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta batzuen eta besteen arteko botere-asimetriei loturik dituen arazoei. Gurea bezalako gizarte demokratiko eta berdinzale batek, legez behintzat, ezarritako legeak beteko dituen hezkuntza ez-sexista garatu behar du. Hori lortzeko hezkidetza ezarri behar dugu pedagogia gisa, irakatsi eta ikasteko sistema gisa.

Ez da ulertu behar hezkidetza neskak eredu maskulinora parekatzea denik, horrela androzentrismoan eroriko baikinake eta ez baikenioke egoki helduko hezkuntza-eredu ez-sexista eratzeko eginkizunari. Hezkidetzak esan nahi du hezkuntza-eredua kutsatzen duen sexismoa sakonki berrikustea eta, azkenik, aldaketarako erre-mintak eta tresnak abian jartzea.

Aurrekoa kontuan izanik, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren ildotik, **hauek izango lirateke hezkidetza-eskolak planteatzen dituen helburu nagusiak:**

- 1. Hezkuntzaren arloan** lantzen den **araudiak** berdintasuneko eta hezkidetzako mandatuak beteko dituela **bermatzen** jarraitzea.
- 2. Emakumeen jakituria eta ekarpen sozial eta historikoa diziiplina guztietan txertatzea.** Emakume asko dira eta izan dira historia aldatzen lagundu dutenak eta beren diziplinaren barruan erreferente handiak izan direnak. Haiek berreskuratzeak, ikusgai egiteak eta gure ikasleei ezagutzera emateak ezabatu egiten du errealtatearen parte hori ezkutatzean sortzen zen genero-joera, baina gainera, erreferente femeninoak sortzen ditu neskentzat, baita mutilentzat ere.
- 3. Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, bi sexuen irudi plurala bermatuko duena, genero-rolak eta -estereotipoak alde batera utzita.** Generoan ez ezik kultura edo sexu-aukera bezalako alderdietan diskriminaziorik sortzen ez duten hizkuntza eta irudia erabiltzea hezkidetza-eskola sortzeko funtsezko urratsa da.
- 4. Orientazio akademiko-profesional ez-sexista bermatzea:** sozializazio-prozesuan zehar kanpo-eraginak izaten dira gazteengan, erabakiak hartzen dituztenean eragin nahian. Eragin horiek familia-inguruntetik bertatik, adiskideengandik, gazteak xede duen inguruntetik eta lan-merkatutik bertatik etor daitezke. Horiek horrela, irakasleak, ikasleak eta familiak irauten duten genero-estereotipoen jakinaren gainean jarri behar dira eta orientazioan eragina izan dezaketen uste eta aurreiritzi sexistak indargabetzeko bideratu.
- 5. Berdintasuna sartzeari ezkutuko curriculumean eta ageriko curriculumean.** Ageriko curriculumetik kontua izango litzateke, besteak beste, hezkuntza-sisteman ezartzen diren edukien berrikusketa egitea, tradizioz femeninoak izan diren eta ikusezin bihurtu diren esferak sartzeko, adibidez zainketaren etika, ikuspegi feministatik begiratuta. Ildo horretan, behar-beharrezkoa da testuliburuak hizkuntza eta irudi inklusiboak txertatzea eta jakintza-arlo guztietan erreferente diren emakumeak barnean hartzea. Ezkutuko curriculumetik, bestalde, irakasleek, familiak eta ikasleek besteekiko interakzioan gauzatzen dituzten arauak, balioak, jarrerak eta portaera berrikusi behar dira. Genero-sozializazio desorekatua eta horrek ikastetxeetan ezartzen diren harremanetan duen eragina aztertu behar dira.
- 6. Aniztasunaren molde guztiak txertatzea.** Ikastetxeetan aurkitzen ditugun desberdintasunak soilik sexuari eta generoari ez dagozkiola kontuan hartuta, hor baitaude, halaber, klase soziala, kultura, jatorriko herrialdea, erlijioa, sexu-aukera eta abar. Hezkuntza-jardunbideari hezkidetzatik ekinez gero, desberdintasun horietako bakoitza aintzat hartzea eta desparekotasunak saihestea bermatuko dugu.
- 7. Baliabideen eta espazioen erabilera bidezkoa sustatzea.** Espazioen banaketak eta erabilerak eta hezkuntza-ingurunearen antolakuntzak ere garrantzizko eginkizuna betetzen dute balio eta arau sozialen transmisioan. Horregatik, espazio eta baliabide horiek modu orekatuan erabiliko direla bermatu behar da.

- 8. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta tratu ona sustatzea.** Indarkeria gure gizarte desorekatuen osagai estrukturala da. Hori dela eta, kritikoak izan behar dugu nagusitasun eta mendetasuneko eskema patriarkaletan oinarritutako harremanekin, eta tratu onetan hezi, justiziaren etikatik eta zainketaren etikatik.

Hezkidetzarik ezak hezkuntza alboratua ez ezik hezkuntza sexista ere sortzen du. Eskola, ikastetxea, guztiok gure bizitzako denbora luzean hartzen gaituen espazio nagusia da. Hezkuntzak kontuan izan behar du ikasgelek eta ikasleek duten aniztasuna, ikusmolde holistikotik begiratuta (LGBTI ikasleak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, ikaskuntza-eredu desberdinak dituzten ikasleak, maila sozioekonomiko desberdinetatik datozen ikasleak, ikasle migratzaileak eta abar).

Hezkidetzako eskolak, «berdintasunean» eta «berdintasunerako» hezten duenez, errespetuan, bizikidetzan, gatazka-ebazpenean eta indarkeriarik ezean hezten ari da. Ikastetxe edo ikasgela baten barruan berdintasuna ukatzen dugunean edo behar bezala aintzat hartzen ez dugunean, aurre egin behar diegun gatazkak sortzen dira, baina maiz ez dugu horretarako tresnarik aurkitzen. Ildo horretan, hezkidetzaren ikuspegia da gatazkak aztertzeke kontuan izan behar ditugun ikuspegi nagusietako bat. Horietako askoren atzean genero-sozializazio desorekatua dago, oro har neska-mutilak hezteko modu gisa uler dezakeguna, estereotipo eta rol desberdinak kontuan hartuta batzuentzat zein besteentzat. De Miguelek (2015) defendatzen duen moduan, arrosaren eta urdinaren hezkuntzak oso presente jarraitzen du gaur egun.

Sozializazio desorekatu horrek bideratzen ditu mutilak (ez guztiak), elkarrizketarik ez egitera, enpatiarik ez izatera, indarra eta indarkeria gatazkei aurre egiteko baliozko tresnatzat hartzera, gutxiagotzat jotzen dituztenenganako errespeturik ez izatera (neskak, maskulinitate hegemonikoaren mandatuak betetzen ez dituzten mutilak, bestelako sexu-orientazioak dituzten pertsonak...). Areago, indarkeria ohiko elementutzat duten marrazkiak ikusten eta bideo-jokoetan aritzen sozializatzen dira mutilak. Indarkeria hori haien sozializazioaren parte bada, nola lan dezakegu? Erantzuna sinplea da, baina ez da erraza: genero-sozializazio desorekatuaren «dekonstrukzioa» jo eta berdintasunezko maskulinitate berriak erakutsita. Hori erraza ez bada ere, **emakumeen aurkako indarkeriaren** prebentzioaren oinarrietako bat da.

Hezkidetzako pedagogiak, «berdintasunean» eta «berdintasunerako» lan egiteak, genero-indarkeria prebenitzen du (ez ditzagun ahazt Emakunderen 2018. urteko azken txostenean bildutako datuak. Izan ere, bertan jasotzen denez, 18 urte baino gutxiagoko emakumeek jasaten duten indarkeria nagusia etxeko indarkeria eta sexu-indarkeria da, eta kontuan izan behar da hamar biktima nerabetik (14-17 urte) hiruri beren bikotekideak edo bikotekide ohiak eraso ziela), baita LGTBIfobia, jazarpena eta ziberjazarpena, arrazismo-arazoak eta abar prebenitu ere. Berdinen eta desberdinen arteko harremanak sustatzen ditu eta gizarte berdinzale, bidezko eta errespetutsurako prestatzen du.

2.1 Hezkidetzako eskolaren bidean aurrera egiteko oinarritzko elementuak

Hezkidetzako eskolaren bidean aurrera egiteko oinarritzko elementua hezkuntza-sistema bera ahalduntzea da, berau aldaketarako motor gisa hartu ahal izateko. Sistema horrek gizarte-arazoei irtenbideak eskaintzeko gaitasuna behar du izan, ikasleak alor akademikoan ez ezik beste alorretan ere prestatu behar ditu, maila pertsonal eta herritarrean esaterako, eta hala izango da hezkuntza-sistema gizarte-eraldaketarako sistema ahaldundua, gaitua. Hezkuntza ez da gizartearen isla soil gisa ulertu behar; hezkuntza-sistema urratsak eman eta gizartearen beharrezko eraldaketetan bere alea ematen saiatu behar da. Behar dugun eskolak ezin du se-

xista, klasista, arrazista, ezta homofobia izan, ezin ditu maiz gizartean bizi ditugun egoerak errepikatu; aldiz, gizartean ditugun desparekotasunen inguruko ikuspegi kritikoa sortzen lagundu behar du, horiek desagertzen aurrera egiteko.

Hezkuntza-plangintza gizartearen gehiengo zabal batek partekatzen duenean eta, zehazki, hezkuntza-komunitateak (irakasle, ikasle eta familiek) partekatzen dutenean, hezkidetzako eskolarantz egitea ematea errazagoa da. Gainera, hezkuntza-sisteman bertan gertatzen denaren gaineko ardura beste pertsona edo erakundeei leporatzea ekiditen du. Illdo horretatik, ahaldundutako eskolak ez dio beste inori erantzukizunik eskatuko, bere erantzukizuna gain hartuko du, autokritika egin eta gatazka horretan zein funtzio duen aztertuko du, gai horri ekiteko.

Ahalduntzeaz eta autokritikaz gain, hezkidetzako eskola ezartzeko, beharrezkoa da, aldi berean, norabide honetan urratsak ematea:

- 1. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta hezkidetzako sustatu, koordinatu eta jarraipena egiteko egitura egonkorrak sortzea:** beharrezkoa da hezkuntza-administrazioak eta hezkuntza-sistemak egitura egonkorrek edukitzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta hezkidetzarako politikak sustatu, koordinatu eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Hala, plan honetan jasotako neurriak ezartzen direla bermatuko da.



2. **Hezkidetzan prestatutako irakasleak.** Honako hau funtsezko elementuetako bat da hezkidetzako eskola abian jartzeko. Beharrezkoa da irakasleek prestakuntza jasotzea; prestakuntza etengabea ez ezik, hasierako prestakuntza ere bai, berdintasunean eta berdintasuneranzko hezkuntza zeharka txertatu duena. Irakasleek desparekotasunekiko sentiberatasuna izan behar dute, horiek nola sortu eta errepikatzen diren kontzientzia hartu behar dute. Halako irakasleek abian jartzeko tresna gehiago izango dituzte, halako prestakuntza jaso ez duten irakasleek baino.
3. **Familiak eskolan esku hartzea.** Hezkidetzako eskola familiei irekia izan behar da, baita eskola kokatzen den ingurunera kokatuta egon ere. Garrantzitsua da familiak hezkidetzaren seme-alaben prestakuntzarako alderdi garrantzitsutzat hartzea, eta hori beren etxeetan praktikan jartzen saiatzea.
4. **Ikastetxeetara egokitutako Hezkidetzaren Plana.** Dokumentu horrek, egoeraren behar bezalako diagnostikoa abiapuntu hartuta, ikastetxe bakoitzak berdintasunaren alorrean lortu nahi dituen helburu nagusiak bilduko lituzke, horiek lortzeko ekintza zehatzak egikaritu eta, ondoren, ebaluatu ahal izateko. Ez da, inondik inora, hezkidetzaren jardura jakin batzuetara eta efemerideak ospatzera mugatzea; berdintasuna ikastetxe osoan hedatzea da helburua.
5. **Ikasgelan hezkidetzaren materialak txertatzea.** Testuliburuak, baliabide didaktikoak, ikus-entzunezko materialak, irakurgaiak, ipuinak edota jostailuak ezin dira sexistak, arrazistak, homofoboak edota klasistak izan; materialek berdintasunean eta berdintasunerako hezi behar dute.

Hori guztia lortzeko, ikastetxeetan hezkidetzaren hainbat Zutabe Nagusi garatzea proposatzen dugu, jarraian deskribatuko den moduan.

2.2 Hezkidetzaren zutabeak

Plan honek proposatzen duena da ikastetxeek hezkidetzaren zutabe nagusiak barnean hartuko dituzten baterako ekintza sistematikoak garatzea; horren bidez, berdintasunezko oinarriak eraikiko dira eta oinarri horiek emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio bikaina izango dira. Emakumeak zein gizonak berdintasunik gabeko gizartean hezi gara, eta gizarte horrek markatu du gure izateko modua; berdintasuna, beraz, hezkuntza kontua da, eta desparekotasunaren, sexismoaren eta emakumeen aurkako edonolako indarkeriaren aurrean izpiritu kritikoa duten gizon eta emakume gisa taxutzen laguntzen digu.

Hezkidetzaren emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko oinarria, eta hezkidetzak **ikastetxe baten ekintza guztiak —ikasgelaren mailan, irakasleen prestakuntzaren mailan eta antolamenduaren mailan— eusten eta zeharkatzen dituzten zenbait gai nagusi edo zutabe** jorratzen ditu. Era berean, zutabe horiek hezkuntzaren estamentu guztietan agertu beharko dute, Hezkuntza Saitetik hasi eta ikastetxeetara bitarte.

Hezkidetzari lotutako ikastetxe bakoitzeko ekintzek aintzat hartu beharko dute zutabe horien azterketa, analisia eta praktikan jartzea; hartara, berdintasuna eskolatzearen lehen urteetatik ikasgelara eramateko lan sistematikoa egingo dugu.

Adin bakoitzak —hezkuntza-maila bakoitzak— ibilbide zehatza izango duenez gero, behar-beharrezkoa da irakasleak trebatzea hezkidetzaren gaiak haien ikasgelako testuinguruan aplikatzeko.

Ondoren, hezkidetzaren zutabeak garatzen dira, eta hezkuntza maila bakoitzean zein eduki duten argituko du:



1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean

Honako hau litzateke hezkidetzaren lehenengo zutabea, erabat zeharkatzen baititu gainerakoak. Ikasgelan berdintasuna lantzeko oinarria da. Genero-ikuspegia modu kritikoan landuta baino ezingo dugu onartu genero-arrazoigatiko desparekotasunak daudela.

Horretarako, genero-ikuspegitik egindako analisia funtsezko estrategia da, sexismoa hezkuntza-sisteman eta, beraz, gizarte osoan errotik kentzeko. Estereotipoz beteriko hezkuntzan pentsamendu kritikoa duten irakasleak behar ditugu; hezkuntza hori gure historia pertsonaletan jaso eta gure ikasleei helarazten jarraitzen dugu.

Illo horretatik, irakasleen prestakuntza berebizikoa da genero-ikuspegitik aztertu ahal izateko.

2. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista

Hizkuntzaren erabilera ez da neutrala, hizkuntza komunikatzeko, mundua ulertzeko erabiltzen dugu, baita berau aldatzeko ere; gure pentsamendu osoa hizkuntzatik pasatzen da. Georges Steinerren "izenik ez duena ez da existitzen" aipua indar-indarrean dago egun dugun hizkuntzaren erabileran. Berdintasunaren alde lan egiten dutenek badakite hizkuntza errealitate bizia dela, bere bilakaera duela eta garai bakoitzeko erabilerara egokitzeko dela; hartara, emakumeak (feminismoari esker) mundu publikoan sartzean, berau bistaratu egin behar da hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren bitartez. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista ez da, soil-soilik, genero maskulinoa eta femeninoa erabiltzea, are zabalagoa da kontua; generoarenatik bereizketa egiten ez duten hizkuntzei ere eragiten die.

Illo horretatik, irudiek komunikatzeko indar handia dute eta, hori dela eta, imaginario kolektiboa eraikitzen laguntzen dute. Hala, beharrezkoa da horiek genero-ikuspegitik aztertzea.

3. Emakumeen jakituraren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa

Historian zehar, baita gaur egun ere, gure kulturaren gabezia handienetako bat, orokorrean, eta gure ikasgeletako material eta testuliburuena zehazki, emakumeek gizakiaren historian zehar alor guztietan egindako ekarpenen ikusezintasuna da. Androzentrismoak gure kultura menperatu du eta hutsune handi bat eragin emakumeen jardunaren ezaguerari eta aintzatespenari dagokienez.

4. Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez

Elkarbizitzan genero-ikuspegia aplikatzea oinarritzat da indarkeria sexistari aurre hartzeko, indarkeria hori edozein delarik ere. Elkarbizitza positiboaren oinarria hezkidetzak plangintza behar du izan, hau da, errespetu eta berdintasunezko harremanetan oinarritutako elkarbizitza behar du izan. Hezkidetzak harremanetan indarkeria prebenitzeko baliabideak, estrategiak eta ezaguera eskaintzen ditu. Harremanak aztertzean, estereotipo maskulino eta femeninoekin lotutako nortasun-erakundeekin zuzenean lotutako jarrerak, rolak, pentsamenduak, emozioak edota balioak daudela ikus daiteke. Maiz, estereotipo horiei erantzuten ez dieten pertsonak zigortu egiten dira, eta eskola-jazarpena ere paira dezakete.

Elkarbizitza positiboaren oinarria pertsonen arteko zaintza da, genero-estereotiporik gabekoa, tratu txarrak prebenitzeko tratua ona, bazterketaren aurrean talde-kohesioa, berdintasunezko lidergoak indartsuenaren tiranien aurrean... Berdintasuna eta hezkidetzak oinarri hartuta eraikiko ditugu elkarbizitza baketsua, berdintasunezkoa eta enpatikoa lortzeko ikastetxeak.

5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa

Hezkidetzak etxeko espazioan ere jartzen du arreta, eta hori hiru norabidetan egiten du: lehendabizi, pertsona guztiek behar dute autonomia izan beren egunerokotasunean; bigarren, pertsona guztiei aitortu behar zaie (gehienak emakumeak) beste pertsonen zaintzetan ardatz izan direla, eta egun direla; eta hirugarren, etxeko eremuaren errealitatea aztertzea, etxeko lanen eta gizon eta emakumeen zaintzaren banaketa desorekatuan historikoki eta gaur egun ematen diren desparekotasunak aztertzea. Horren ondorioa da lanaren banaketa sexuala eta, hortaz, desparekotasuna eta diskriminazioa azaleratzea.

Era berean, eta aurrekoarekin oso lotuta, independentzia ekonomikoa landu behar da, independentzia pertsonala eskuratzeko oinarri gisa. Jakina da independentzia ekonomikoa funtsezkoa dela tratu txarreko harremanetatik ihes egin eta bizitza genero-indarkeriatik urrun berregiteko. Gainera, lan ordainduaren gaiari dagokionez, azpimarratzekoa da oraindik ere emakumeak gehiengoak direla okerren ordaindutako lanpostuetan,

baita menpeko pertsonak zaintzeko kontziliazio-neurriak eskatzen dituztenak ere. Kristalezko sabaia ere erreallitate dugu gaur egun, soldata-arrakala, hainbat lanposturen eta ibilbide akademikoen feminizazioa, beste hainbaten maskulinizazioa, etab.

Hori dela eta, hezkidetzak oreka lortu nahi du, etxeko eremuan eta eremu publiko eta okupazionalan; etxean gizonen eta emakumeen arteko benetako erantzunkidetasunik gabe, desoreka handia egongo da eremu publiko edo profesionalan gizonen eta emakumeen arteko desparekotasuna alderantzizatzeko.

6. Espazioak ikastetxean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak

Ikastetxeetako espazioak, jolas-orduetakoak bereziki, mutilek hartu ohi izan dituzte lehiaketa-jolasetan aritzeko. Gainera, espazio hori bera asko bereizten da mutil eta neska taldeetan, eta bi talde horiek ez diote elkarri asko eragiten.

Ikastetxeak ari dira eremu hori lantzen, eta badaude ikastetxeetako jolastokietan arrakasta izan duten proiektuak: **bertako jarduerak eta espazioaren banaketa harreman berdinzaleagoak eta erabilera bidezkoagoa bultzatzeko diseinatu dira**. Hala ere, beharrezkoa da hezkidetzako espazioak errazteko estrategiak ezartzen jarraitzea.

Era berean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak mutil eta neskek modu berdinzalean partekatze proposatu behar dira.

Horrek guztiak ikastetxeko jaialdiak edota inauterietako mozorroak, besteak beste, birpentsatzera garamatza; horietan guztietan, berdintasunerako eta estereotipoen aurkako ekintzak landu behar dira.

7. Berdintasunezko hezkuntza afektiboa eta sexuala

Hezkuntza sexualak, osasun eta garapen pertsonal gisa, helburu du pertsonalki haztea eta sexuarekiko jarrera baikor eta arduratsua izatea; hartara, arduraz jokatzeko laguntzen du, ez norberarekin soilik, inguruan duen testuinguru sozialeko beste pertsonekin ere.

Hezkuntza horren oinarriak nazioarteko hainbat erakunderen arau eta aholkuetan oinarritzen dira, hala nola, erakunde hauetan: **MOE-Munduko Osasun Erakundea, UNESCO Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea eta UNICEF Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa**.

Zehazki, kontuan hartu behar dira dokumentu honek barne hartzen dituen orientabideak: "Sexualitatearen alorreko hezkuntzari buruzko nazioarteko orientabide teknikoak. Evidentzian oinarritutako ikuspegia 2018"²⁹, MOE-Munduko Osasun Erakundeak, UNESCO Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak eta UNICEF Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa osatua. Dokumentu horretan hezkuntza sexuala txikitatik eskaintzea beharrezkoa dela proposatzen da, eta eskolatzearen etapa guztietan zehar lantzeko gaitzat hartu. Hori ondorioztatzeko arrazoia da hezkuntza sexualak ondorio positiboak dituela, pertsonok sexualitatearen inguruan dugun ezagutza hobetzen duelako eta, beraz, jokabide sexualari eta osasun sexualari dagokienez jarrera ere hobetzen delako; sexu-transmisioko gaixotasunak eta GIB izateko arriskua murrizten da, eta ez du pertsonaren jarduera sexuala areagotzen; gainera, hezkuntza sexuala are eraginkorragoa da genero-ikuspegitik jorratuta, ikuspegi hori txertatu gabe jorratuta baino. Hezkuntza sexuala eraginkorragoa da familiekin koordinatuta jorratzen denean, hau da, etxean eta ikastetxean ahaleginak batu eta berdintasunean, osasunean,

²⁹ MOE. Sexualitatearen alorreko hezkuntzari buruzko nazioarteko orientabide teknikoak. Evidentzian oinarritutako ikuspegia. UNESCO. Hezkuntza sektorea.2018.

gozamenen eta pertsona guztiekiko eta gizatasunak berezkoa duen aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza sexuala eskaintzen denean.

8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea

Hiru jarduera motari buruz ari gara: ikasleak sentsibilizatzeko helburu dutenak, ikastetxeak espazioetan errepikatzen ari diren matxismo eta indarkeria egoerak hautematea helburu dutenak eta, azkenik, ikastetxean indarkeria kasuak hauteman ondoren zuzeneko esku-hartzea burutzea helburu dutenak.

2.3 Helburuak

1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsoenez hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integratzen bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.

1.1 Helburu zehatza. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko.

1.2 Helburu zehatza. Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta berdintasunaren aldeko neurriak eta hezkidetzak ezartzeko eta koordinatzeko egiturak bermatzea.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Ikastetxeek beren kulturaren, politikaren eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea.

2.1 Helburu zehatza. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak betetzeko helburuarekin, curriculumean genero-ikuspegia gehitzeko hobekuntza-proposamenak lantzea.

2.2 Helburu zehatza. Genero-ikuspegia osagai estrategikotzat hartzea ikastetxeak eskaintzen dituen erakundeko eta antolakuntzako dokumentu guztietan.

2.3 Helburu zehatza. Hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea.

2.4 Helburu zehatza. Koordinazioa eta lankidetzak sustatzea, eragileen, erakundeen eta ikastetxeen artean.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA. Indarkeria matxista prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.

3.1 Helburu zehatza. Hezkuntza-komunitatea prebenitzea eta sentsibilizatzea indarkeria matxista garaiz detektatzeko.

3.2 Helburu zehatza. Indarkeria matxistako egoerei azkar eta eraginkortasunez erantzutea.

2.4. Lan-plangintza

1. Helburu estrategikoa. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsonen hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean bultzatzeko.

1.1 Helburu zehatza. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
1. Hiru lurraldeetan hezkidetzaren arloan zonako mintegiak eskaintzen jarraitzea.	Mintegiak egin dira Berritzegune guztietan, Berritzeguneetarako orientabideetan ezarritako aldizkakotasunaren arabera.	- Zonako BG Zuzendaritzak - Zonako Berritzeguneetako hezkidetzako arduradunak - Berritzegune Nagusia - Hiru lurraldeetako HB arduradunak	X	X	X	X
2. Irakasleei zuzendutako hezkidetzari buruzko oinarriko prestakuntza ematea, hezkuntza-etapa bakoitzera egokitua.	Oinarriko prestakuntza eskaini zaie deialdiarekin bat egin eta hezkidetzako proiektuak garatu dituzten ikastetxeetako Oinarriko Hezkuntzako irakasleei.	- Zonako BGak - Berritzegune Nagusia	X	X	X	X
3. Orientabide-arloko langileei eta bizikidetzako arduradunei zuzendutako bokaziozko orientabide ez-sexistari buruzko prestakuntza ematea, hezkuntza-etapa bakoitzera egokitua.	Prestakuntza eskaini zaie orientabide-arloko langileei eta bizikidetzako arduradunei.	- Zonako BGak - Berritzegune Nagusia	X	X		
4. Familiei zuzendutako hezkidetzari buruzko oinarriko prestakuntza ematea, hezkuntza-etapa bakoitzera egokitua.	Oinarriko prestakuntza eskaini zaie deialdiarekin bat egin eta hezkidetzako proiektuak garatu dituzten ikastetxeetako Oinarriko Hezkuntzako familiei.	- Zonako BGak - Berritzegune Nagusia (Udalerrietako Berdintasuneko Eragileekin elkarlanean)			X	X
5. Irakasleei zuzendutako hezkidetzan sakontzeko prestakuntza ematea, hezkuntza-etapa bakoitzera egokitua.	Hezkidetzan sakontzeko prestakuntza eskaini zaie deialdiarekin bat egin eta hezkidetzako proiektuak garatu dituzten ikastetxeetako Oinarriko Hezkuntzako irakasleei.	- Zonako BGak - Berritzegune Nagusia			X	X
6. Prest-Gara planaren esparruan, hezkidetzari buruzko ikastaro espezifikoak eskaintzea.	Hezkidetzari buruzko ikastaro espezifikoak eskaini dira Prest-Gara planaren esparruan	Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza – Berritzegune Nagusia, Emakunde eta Berdintasuneko Teknikariarekin elkarlanean	X	X	X	X
7. Ikastetxeetako zuzendaritza-talde berriei zuzendutako ikastaroetan hezkidetzako prestakuntza barne hartzea.	Ikastaroetako edukietan hezkidetzarekin lotutako prestakuntza barne hartu da.	Berritzegune Nagusiko Zuzendaritza	X	X	X	X

1. Helburu estrategikoa. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsonen hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integrean bultzatzeko.

1.1 Helburu zehatza. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
8. BAT taldeen hezkidetzako prestakuntza bermatzea.	Ikastaroetako edukietan hezkidetzarekin lotutako prestakuntza barne hartu da.	• Bizikasi taldea	X	X		
9. Hautemandako beharren arabera, Hezkuntza Ikusapenera zuzendutako prestakuntza zehatza antolatzea.	Lurralde bakoitzeko Ikuskaritzako eta Ikuskaritza Nagusiko arduradun baten prestakuntza bermatzea.	• Ikuskaritza Nagusia • Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza	X		X	
10. Hautemandako beharren arabera, ISEI-IVEI erakundeari zuzendutako prestakuntza zehatza antolatzea.	Berdintasun-arloko taldearen prestakuntza bermatzea.	• ISEI-IVEIko Zuzendaritza • Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza	X		X	
11. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak egiten duen ikastetxeetako gurasoen federazioen laguntza-deialdian hezkidetzan prestakuntza-eskaintza lehenestea.	Federazioen laguntza-deialdian aurkeztutako proiektuen ebaluaziorako irizpideek hezkidetzar-arloko prestakuntza barne hartzen dute.	• Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza	X	X	X	X
12. UPV/EHuren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bitartez, Hezkuntza Berriztatze Zerbizuko langileak hezkidetzaren arloan prestatzea.	Hezkuntza Berriztatze Zerbizuko buruzagitzak, gutxienez, egin du ikastaroa.	• Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza	X	X	X	X
13. UPV/EHuren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bitartez, Hezkuntzako Ikuskaritzako langileei hezkidetzar-arloan prestakuntza ematea.	Lurralde bakoitzeko eta Ikuskaritza Nagusiko Hezkuntzako ikuskaritza batek, gutxienez, egin du ikastaroa.	• Ikuskaritza Nagusia • Ikuskaritzako Lurraldeko Buruzagitzak.	X	X	X	X
14. UPV/EHuren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bitartez, Laguntze Zerbizuetako (Berritzegune) langileei hezkidetzako prestakuntza ematea.	Berritzeguneetako 18 aholkularitzetan egin da ikastaroa.	• Zonako Berritzeguneetako Zuzendaritzak.	X	X	X	X
15. UPV/EHuren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bitartez, IRALEko langileei hezkidetzar-arloan prestakuntza ematea.	Lurraldeko irakasle batek, gutxienez, egin du ikastaroa.	• Irakaskuntza Zuzendaritza • Euskara-zerbitzuko buruzagitzak	X	X	X	X

1. Helburu estrategikoa. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsonen hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean bultzatzeko.

1.1 Helburu zehatza. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
16. UPV/EHUren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bitartez, ikastetxeetako hezkidetzako eta bizikidetzako arduradunei hezkidetzako arloan prestakuntza ematea.	Lurraldeko irakasle batek, gutxienez, egin du ikastaroa.	• Irlako Zuzendaritzak • Berritzegune Nagusia • Zonako Berritzeguneak	X	X	X	X

1.2 Helburu zehatza. Hezkuntza-sisteman hezkidetzako eta berdintasunaren aldeko neurriak eta hezkidetzako ezartzeko eta koordinatzeko gitureak bermatzea

EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
17. Ordezkaritza Organo Gorenean Berdintasuneko Ordezkararen eta Hezkidetzako Arduradunaren izendapena ikastetxe publiko guztietan bermatzea.	Hezkuntza Sailburuordetzaren ikasturte hasierako ebazpenean barne hartu da ikastetxe guztietako Ordezkaritza Organo Gorenean Berdintasuneko Ordezkaria eta Hezkidetzako Arduraduna izendatzea beharrezkoa dela.	• Hezkuntza Sailburuordetza • Hezkuntzako ikuskaritza	X		X	
18. Bizikidetzaren BAT taldean sartzea ikastetxe hezkidetzako arduraduna.	Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko guztietan txertatu da arduradun hori BAT taldera.	• Hezkuntzako ikuskaritza	X	X	X	X
19. Beharrezkoak diren administrazio prozedurak hastea, hezkuntzako zerbitzu estrategikoen (ebaluazio, ikerketa, hezkuntza-ikuskaritza eta irakasleei laguntzeko zerbitzuak) lanpostu zerrendak aldatzeko; hain zuzen ere hezkidetzako gaitasuna errekonozituta duten lanpostuak egon daitezkeen.	Aipatu zerbitzuen lanpostu-zerrendak aldatzeko prozedurari ekin zaio.	• Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza	X			
20. Ikastetxeen elkarbizitzaren beharrezko ikastetxeak garatzen duen hezkidetzako lanari lotutako funtzioak jasotzea.	Ikastetxeen %50ak, gutxienez, txertatu ditu hezkidetzako gaiak beren Beharrezkoetan.	• Hezkuntza Ikuskaritza • Berritzegune Nagusia • Zonako Berritzeguneak	X	X	X	X

2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Ikastetxeek beren kulturen, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea.

2.1 Helburu zehatza. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak betetzeko helburuarekin, curriculumean genero-ikuspegia gehitzeko hobekuntza-proposamenak lantzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
21. Irakasleei curriculumaren genero-ikuspegitik lantzeko jarraibideak eskainiko dizkieten gidak eta materialak egitea curriculumetik, Hezkidetzaren zutabe diren gaietan oinarrituz.	Zutabe bati lotutako material bat, gutxienez, osatu da eta zonako Berritzeguneetako mintegien bidez helarazi da.	• Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendari-tza • Berritzegune Nagusia • Emakunde • UAI- Berdintasuneko teknikaria		X	X	
22. Curriculumaren hezkidetzako ezarpena erraztuko duen gida bat lantzea (Heziberri).	Gida osatu da eta zonako Berritzeguneetan jorratu da.	• Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendari-tza • Berritzegune Nagusia • Zonako Berritzeguneak • Emakunde • UAI- Berdintasuneko teknikaria		X	X	
23. Hezkuntza-komunitate osoaren-tzako hezkidetzari buruzko baliabide-banku bat eskaintzea.	Amarauna webgunean txertatu da baliabide-bankua	• Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendari-tza • Berritzegune Nagusia • Emakunde			X	X

2.2 Helburu zehatza. Genero-ikuspegia osagai estrategikotzat hartzea ikastetxeak eskaintzen dituen erakundeko eta antolakuntzako dokumentu guztietan.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
24. Planak eta proiektuak prestatzeko argitaratutako gidek genero-ikuspegia eranstean dutela bermatzea.	Argitaratutako gidak egokitu dira. Berriak genero-ikuspegia kontuan hartuta argitaratu dira.	• Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendari-tza • Emakunde • UAI- Berdintasuneko teknikaria				X
25. Ikastetxeetan euren dokumentuen azterketa dinamizatzea hezkidetzaren ikuspuntutik.	Zonako mintegietan gaia jorratu da ikastetxeetako arduradunekin.	• Zonako BG aholkularitzak • Ikastetxeetako hezkidetzako arduradunak			X	X
26. Hezkidetzaren zutabeetan oinarrituta, genero-ikuspegia Tutorretza eta Orientazio Planetan txertatzea.	Bizikasi ekimenerako tutoretza-materialek zutabeekin lotutako gaiak barne hartzen dituzte.	• Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendari-tza • Berritzegune Nagusia • Zonako Berritzegune aholkularitzak. • Emakunde	X			

2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea.

2.3 Helburu zehatza. Hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
27. Ikastetxeko Hezkidetzeta Plana prestatzeko materialak lantzea eta ikastetxe guztietara banatzea.	Ikastetxeen %30 (e)k, gutxienez, osatu du Hezkidetzeta Plana.	• Zonako BG aholkularitzak • Ikastetxeetako hezkidetzako arduradunak • Berritzegune Nagusia • Emakunde • UAI- Berdintasuneko teknikaria	X			
28. Ikastetxeetan Hezkidetzeta Planen prestatzea edo eguneratzea dinamizatzea.	Zonako mintegietan gaia jorratu da ikastetxeetako arduradunekin. Ikastetxeen %30 (e)k, gutxienez, berrikusi du Hezkidetzeta Plana.	• Zonako BG aholkularitzak • Ikastetxeetako hezkidetzako arduradunak		X	X	
29. Hezkidetzari buruzko proiektuak diseinatzeko ikastetxe publiko eta itunduetarako deialdia bermatzea.	Ikastetxe publikoentzako deialdia argitaratu da.	• Hezkuntza Sailburuordetza • Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza • Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendari-tza	X	X	X	X
30. Hezkidetzeta Proiektu Integralko deialdia bermatzea, hiru urterako eta 10 ikastetxetarako.	Proiektu Integralaren deialdia argitaratu da.	• Hezkuntza Sailburuordetza • Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza • Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendari-tza			X	
31. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako berdintasuneko indizea lantzea, eskola mistoa hezkidetzeta-eskolan eraldatzeko aldatzeko ebaluatzea.	Aipatu ebaluazioa egiteko berdintasuneko indizea osatu da.	• Emakunde • ISEI-IVEI • UAI- Berdintasuneko teknikaria			X	X
32. Ikastetxeek euren autoebaluazioa egin eta eskola mistoa hezkidetzako eskolan eraldatzeko aldatzeko analiza dezaten sustatzea, berdintasun-indizean bildutako adierazleak erabiliz.	Autoebaluaziorako tresna osatu da eta hezkidetzako deialdietan parte hartu duten ikastetxeek hobetzeko helburuak zehazteko autoebaluazioa egin dute.	• Berritzegune Nagusia • Zonako Berritzeguneak • Emakunde				X

2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Ikastetxeek beren kulturen, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea.

2.4 Helburu zehatza. Koordinazioa eta lankidetzak sustatzea, eragileen, erakundeen eta ikastetxeen artean.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
33. Komunitatean hezkidetzako jardunbide egokiak identifikatzea eta jardunbide horiek trukatzeko eta jendarteratzeko jardunaldiak antolatzea.	Zonako berritzeguneek identifikatu dituzte Berritzegune Nagusiarekin egindako koordinazio-saioetan bildutako ikastetxeen jardunbide egokiak.	• Berritzegune Nagusia eta zonako Berritzeguneak	X	X	X	X
34. Hezkidetzaren esparruan jardunbide egokiak dituzten ikastetxeen esperientziak Partekatuz-Ikasi programan jasotzea.	Partekatuz Ikasiren deialdiak barne hartzen ditu bere eskaintzan hezkidetzari lotutako bizpahiru esperientzia, gutxienez.	• Berritzegune Nagusia eta zonako Berritzeguneak	X	X	X	
35. Ikastetxeen eta udalerrietako berdintasuneko teknikarien arteko lankidetzak-espazioetan lankidetzako praktikak sortzea.	Lankidetzako praktika edo esperientziak hauteman dira.	• Berritzegune Nagusia eta • zonako Berritzeguneak • Emakunde			X	X
36. Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza genero-ikuspegiarekin egiten dela sustatzea.	Ikasturte hasierako Ebazpenean jaso da eskolaz kanpoko jardueretan genero-ikuspegia txertatu behar dela.	• Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza	X	X	X	X

3. HELBURU ESTRATEGIKOA. Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.

3.1 Helburu zehatza. Hezkuntza-komunitatea prebenitzea eta sentsibilizatzea indarkeria matxista garaiz detektatzeko.


EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
37. Prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak gauzatea, Emakunderekin elkarlanean.	Hainbat proiektu jarri dira abian (Nahiko, Beldur Barik, Gizonduz, Jabetuz).	- Emakunde - Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendari-tza - Berritzegune Nagusia - Zonako Berritzeguneak - UAL- Berdintasuneko teknikaria	X	X	X	X
38. Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen diferenteei buruzko materialak prestatzea, agertzen hasi diren moduetan sakonduz hauek hautematea bermatzeko.	Materialak egin dira	- UAL- Berdintasuneko teknikaria - Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendari-tza - Emakunde - Berritzegune Nagusia			X	X
39. Informazioa biltzeko sistema bat ezartzea, ikastetxeetan hautemandako emakumeen eta nesken aurkako indarkeria-kasuei buruzko datuak eskura edukitzeko, eraso sexistak, sexualak, homofobikoak, lesbofobikoak, transfobikoak etab. barne hartuz.	Informazioa jasotzeko sistema abian jarri da.	Hezkuntzako ikuskaritza			X	X

3.2 Helburu zehatza. Emakumeen kontrako indarkeriako egoerei azkar eta eraginkortasunez erantzutea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
40. Etxean tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta hobetzeko indarrean dagoen Erakunde Arteko Hitzarmena betetzeko ikastetxeentzako hautemateko eta jarduteko jarraibideak lantzea eta zabaltea.	Ikastetxeei zuzenduriko protokoloa osatu da.	Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendari-tza, Emakunderekin elkarlanean		X		
41. Emakumeen kontrako indarkeriako kasuen jarraipena egitea, mota guztietako eraso sexista, sexual, homofobiko, lesbofobiko, transfobiko eta abar barne hartuta.	Hezkuntzako ikuskaritzak hautemandako kasuen jarraipena egiten du.	Hezkuntzako ikuskaritza	X	X	X	X

3.2 Helburu zehatza. Emakumeen kontrako indarkeriako egoerei azkar eta eraginkortasunez erantzutea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	ALDIA			
			2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023
42. Genero-indarkeriaren kasu kopuruari buruzko txostena egitea, mota guztietako eraso sexista, sexual, homofobiko, lesbofobiko, transfobiko eta abar barne hartuta.	Hezkuntzako ikuskaritzak txostena egiten du.	- Ikastetxeetako Zuzendaritzak - Hezkuntzako ikuskaritza	X	X	X	X



3. KUDEAKETA SISTEMA



Plan hau 2018-2019 eta 2022-2023 ikasturteen artean garatuko da. Ebaluazioa eta jarraipena oinarrituko dira, aurretik definitutako adierazleetatik abiatuta, ekintzak garatzen ESKU-HARTZEN duten eragileek emandako informazioaren biltetan. Bildutako informazioa askotarikoa izango da (parte-hartze datuak, jarduketa kopurua, balioespen kualitatiboak...) eta Planaren eragina balioestea ahalbidetzen duten ikerketetan eta txostenetan ere oinarritu ahal izango da.

Halaber, II. Planaren jarraipena egiteko sortutako batzordeak mantentzea egoki ikusten da.

3.1. Jarraipena eta ebaluazioa

Jarraipen Batzordea

- Hezkuntza Sailburuordetza.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza.
- Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza.
- ISEI-IVEI Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundearen Zuzendaritza.
- Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza.
- Ikuskaritza Nagusia.
- Emakundeko Idazkari Nagusia.
- Euskadiko Eskola Kontseiluko Lehendakaria.

Funtzioak

- Plana abian jartzen dela eta garatzen dela bermatzea.
- Esku hartzeko eta ebaluatzeko estrategiak ezartzea.
- Amaierako txostena zabaltzea.

Bilerak

Batzorde hori ikasturte bakoitzean 2 aldiz gutxienez bilduko da. Bilera bat ikasturtearen hasieran, ikasturtean egingo diren jarduerak planifikatzeko, eta beste bilera bat ikasturtearen amaieran, urteko plangintza ebaluatzeko. Bertan, aurreikusitako helburuak lortzen ari diren neurtuko da eta egin beharreko aldaketak erabakiko dira.

Batzorde Teknikoa

- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikaria.
- Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzako teknikaria: Langileriaren hornikuntza-zerbitzua.
- Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzako teknikaria.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako administrazio-unitateko teknikaria.
- Berritzeguneak Laguntza Zerbitzuak: Nagusia eta zonakakoak.
- Hezkuntzako Ikuskapen Nagusia.
- ISEI – IVEI.
- Emakunde.
- Euskadiko Eskola Kontseilua.

Funtzioak

- Gauzatu beharreko jarduketan planifikazio-zirriborro bat egitea urtero.
- Jarduketan jarraipena egitea eta behar diren zuzentzeko eta hobetzeko tresnak proposatzea.
- Informazioa jasotzea, Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- Jarraipenari, ebaluazioari eta hobekuntza-proposamenei buruzko txostenak egitea, jarraipen-batzorderako.
- II. Plana ezartzean lortutako emaitzei buruzko txostena egitea.

Dagozkion funtzioak errazago betetzeko, Batzorde Teknikoak honako hauek osatutako teknikarien lantalde bat eratuko du:

- Berrikuntza Zuzendaritzako teknikariak
- Emakundeko berdintasuneko teknikaria
- Hezkuntza Saileko berdintasuneko teknikaria
- Berritzegune Nagusiko hezkidetzako arduraduna
- Zonako bi Berritzegunetako hezkidetzako erreferenteak
- Hezkuntzako Ikuskaritzako hezkidetzako arduraduna

3.2. Komunikazio-estrategia

II. Plana diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea, Hezkuntza-administrazioak bere gain hartu behar duen erantzukizuna izateaz gain, Administrazioak Berritzeguneen, Hezkuntzako Ikuskaritzaren, irakasleen, familien eta ikasleen konpromisoa behar du. Plan honek arrakasta izateko, hezkuntza-komunitate guztiak parte hartu behar du.

Hortaz, ezinbestekoa da, hezkuntza-komunitateak batetik, planaren garapenaren gaineko informazio zuzena izatea, eta, bestetik, informazioa trukatzeko bideak izatea eta zein asmo, erronka eta aurrerapen dauden ezagutzea.

Zentzu horretan, hezkidetzako eskola bat lortzeko Sailak eskuratzen dituen konpromisoak sozializatzea ahalbidetuko duen komunikazio egokia beharko du planak. Komunikazio-plan hori gauzatzeko hiru une garrantzitsu egongo dira: komunikazioa, plana onartzeko fasean, komunikazioa, plana ezartzeko fasean eta amaierako fasean, planaren ezartze-maila eta honek hezkuntza-komunitatean duen eragina jakinarazteko.

Horretarako hainbat jarduketa aurreikusten dira:

Komunikazio-estrategiaren barruan egin beharreko jarduketak:

Jarduketak onarpen-fasean

- II. Plana Aurkezteko Jardunaldia: *“EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean”*
- Etxean tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei emandako laguntza hobetzeko Erakunde arteko II. Hitzarmena Batzorde Teknikoan eta Jarraipen Batzordean aurkeztea.
- Plana Sailaren web-orrian argitaratzea
- Plana ikastetxeetan zabaltzea hainbat material idatziren bitartez

Jarduketak ezarpen-fasean

- Zonako Berritzeguneen aholkularitzaren bidez II. Plana —*“EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean”*— ezartzeko prestakuntza
- Ezarpenari buruzko emaitza azpimarragarrienak Batzorde Teknikoari eta Jarraipen Batzordeari aldizka jakinaraztea
- Urtero lortutako emaitza nagusiak ikastetxeei jakinaraztea

Planaren indarraldia amaitu ondorengo jarduketak

- II. Plana —*“EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean”*— ezarriz lortutako emaitzei buruzko txosten bat prestatzea eta hedatzea


3.3. Baliabideak

Euskal hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunerako eta tratu onerako bidean finkatzeko, honako baliabide hauek behar dira:


1. Prestakuntza ahalbidetzea 1.1. helburu zehatzarekin zerikusia duten ekintzetan.
2. Prestakuntza emango dute, batez ere, Berritzeguneetako langileek (mintegiak, ponentziak, ikastaroak, jardunaldiak ...), hainbat erakundek (Prest-Gara eskaintza) eta UPV/EHUK.
3. Ikastetxeetan hezkidetza-planak egiteko, ezartzeko eta horien jarraipena egiteko (2.3 helburu estrategikoa) laguntza-zerbitzuen (Berritzeguneak) aholkularitza ahalbidetzea.
4. Ikastetxeei laguntzeko orientabideak, materialak, baliabideak eta abar prestatzea, beren dokumentuak, praktikak ... berrikusi eta eguneratzeko genero-ikuspuntutik eta hezkidetza-planak garatzen lagunduko dieten erabakiak hartzeko. (2.1 eta 3.1 helburu estrategikoa).

Zonaldeko Berritzeguneetako kideak, Berritzegune Nagusiko kideak, Ikuskaritzako kideak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Teknikaria – hezkuntza esparrua – eta EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea izango dira, gehienbat, material horiek egingo dituztenak. Era berean, sailetik kanpoko espezialistek egiteko aukera ere aurreikusten da.

5. Ikastetxeak baliabidez hornitzea hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren arloko lana garatzeko (2.3. helburu estrategikoa, 29. eta 30. ekintzak).



4. ERANSKINAK



1. eranskina. Arduradunak, helburuak eta ekintzak

ARDURADUNAK: Hezkuntza Sailburuordetza eta/edo Berrikuntza Zuzendaritza

1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertonez hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.

1.1 Helburu zehatza. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko

1. Hiru lurraldeetan hezkidetzaren arloan zonako mintegiak eskaintzen jarraitzea.
6. Prest-Gara planaren esparruan, hezkidetzari buruzko ikastaro espezifikoak eskaintzea.
10. Hautemandako beharren arabera, ISEI-IVEI erakundeari zuzendutako prestakuntza espezifiko antolatzea.
11. Berrikuntza Zuzendaritzak egiten duen ikastetxeetako gurasoen federazioen laguntza-deialdian hezkidetzan prestakuntza-eskaintza lehenestea.
12. UPV/EHuren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bitartez, Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzuko langileak hezkidetzaren arloan prestatzea.
16. UPV/EHuren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bidez ikastetxeetako hezkidetzako eta bizikidetzako arduradunei hezkidetzaren arloan prestakuntza ematea.

1.2 Helburu zehatza. Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta berdintasunaren aldeko neurriak eta hezkidetzaren ezartzeko eta koordinatzeko egiturak bermatzea.

17. Ordezkaritza Organo Gorenean Berdintasuneko Ordezkararen eta Hezkidetzako Arduradunaren izendapena ikastetxe publiko guztietan bermatzea.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Ikastetxeek beren kulturen, politiketan eta jardunbideetan genero-ikusegia txerta dezaten sustatzea.

2.1 Helburu zehatza. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak betetzeko helburuarekin, curriculumean genero-ikusegia gehitzeko hobekuntza-proposamenak lantzea.

21. Irakasleei curriculumaren genero-ikusegitik lantzeko jarraibideak eskainiko dizkieten gidak eta materialak egitea curriculumetik, Hezkidetzaren zutabe diren gaietan oinarrituz.
22. Curriculumaren hezkidetzako ezarpena erraztuko duen gida bat lantzea.
23. Hezkuntza-komunitate osoarentzako hezkidetzari buruzko baliabide-banku bat eskaintzea.

2.2 Helburu zehatza. Genero-ikuspegia osagai estrategikotzat hartzea ikastetxeak eskaintzen dituen erakundeko eta antolakuntzako dokumentu guztietan.

- 24.** Planak eta proiektuak prestatzeko argitaratutako gidek genero-ikuspegia eranstean dutela bermatzea.
- 26.** Hezkidetzaren zutabeetan oinarrituta, genero-ikuspegia Tutoretza eta Orientazio Planetan txertatzea.

2.3 Helburu zehatza. Hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea.

- 29.** Hezkidetzari buruzko proiektuak diseinatzeko ikastetxe publiko eta itunduetarako deialdia bermatzea.
- 30.** Hezkidetzaren Proiektu Integraleko deialdia bermatzea, hiru urterako eta 10 ikastetxetarako.

2.4 Helburu zehatza. Koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea, eragileen, erakundeen eta ikastetxeen artean.

- 36.** Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza genero-ikuspegiarekin egiten dela sustatzea.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA. Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.

3.1 Helburu zehatza. Hezkuntza-komunitatea prebenitzea eta sentsibilizatzea indarkeria matxista garaiz detektatzeko.

- 37.** Prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak gauzatzea, Emakunderekin elkarlanean.
- 38.** Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen diferenteei buruzko materialak prestatzea, agertzen hasi diren moduetan sakonduz hauek hautematea bermatzeko.

3.2 Helburu zehatza. Indarkeria matxistako egoerei azkar eta eraginkortasunez erantzutea.

- 40.** Etxean tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta hobetzeko indarrean dagoen Erakunde Arteko Hitzarmena betetzeko ikastetxeentzako hautemateko eta jarduteko jarraibideak lantzea eta zabaltzea.

ARDURADUNAK: Zonako Berritzegunetako zuzendaritzak, zonako Berritzeguneetako hezkidetzako arduradunak eta Berritzegune Nagusia

1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean prestakuntzaz, egiturez eta pertsonaz bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.

1.1 Helburu zehatza. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko

1. Hiru lurraldeetan hezkidetzaren arloan zonako mintegiak eskaintzen jarraitzea.
2. Irakasleei zuzendutako hezkidetzari buruzko oinarritzko prestakuntza ematea, hezkuntza-etapa bakoitzera egokitua.
3. Orientabide-arloko langileei eta bizikidetzako arduradunei zuzendutako bokaziozko orientabide ez-sexistari buruzko prestakuntza ematea, hezkuntza-etapa bakoitzera egokitua.
4. Familiei zuzendutako hezkidetzari buruzko oinarritzko prestakuntza ematea, hezkuntza-etapa bakoitzera egokitua.
5. Irakasleei zuzendutako hezkidetzan sakontzeko prestakuntza ematea, hezkuntza-etapa bakoitzera egokitua.
6. Prest-Gara planaren esparruan, hezkidetzari buruzko ikastaro espezifikoak eskaintzea (Berritzegune Nagusia)
7. Ikastetxeetako zuzendaritza-talde berriei zuzendutako ikastaroetan hezkidetzako prestakuntza barne hartzea (Berritzegune Nagusia)
14. Laguntzeko Zerbitzuetako (Berritzegune) langileei hezkidetzako prestakuntza ematea, UPV/EHuren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bitartez.
16. UPV/EHuren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bidez ikastetxeetako hezkidetzako eta bizikidetzako arduradunei hezkidetzaren arloan prestakuntza ematea.

2. Helburu estrategikoa. Ikastetxeek beren kulturen, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea.

2.1 Helburu zehatza. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak betetzeko helburuarekin, curriculumean genero-ikuspegia gehitzeko hobekuntza-proposamenak lantzea.

21. Irakasleei curriculum genero-ikuspegitik lantzeko jarraibideak eskainiko dizkieten gidak eta materialak egitea curriculumetik, Hezkidetzaren zutabe diren gaietan oinarrituz (Berritzegune Nagusia).
22. Curriculumaren hezkidetzako ezarpena erraztuko duen gida bat lantzea.
23. Hezkuntza-komunitate osoarentzako hezkidetzari buruzko baliabide-bankua eskaintzea. (Berritzegune Nagusia)

2.2 Helburu zehatza. Genero-ikuspegia osagai estrategikotzat hartzea ikastetxeak eskaintzen dituen erakundeko eta antolakuntzako dokumentu guztietan.

- 25. Ikastetxeetan euren dokumentuen azterketa dinamizatzea hezkidetzaren ikuspuntutik.
- 26. Hezkidetzaren zutabeetan oinarrituta, Genero-ikuspegia Tutoretza eta Orientazio Planetan txertatzea.

2.3 Helburu zehatza. Hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea.

- 27. Ikastetxeko Hezkidetzeta Plana prestatzeko materialak lantzea eta ikastetxe guztietara banatzea
- 28. Ikastetxeetan Hezkidetzeta Planen prestakuntza edo eguneratzea dinamizatzea.
- 32. Ikastetxeek euren autoebaluazioa egin eta eskola mistoa hezkidetzako eskolan eraldatzeko al-daketak analiza dezaten sustatzea, berdintasun-indizean bildutako adierazleak erabiliz.

2.4 Helburu zehatza. Koordinazioa eta lankidetzeta sustatzea, eragileen, erakundeen eta ikastetxeen artean.

- 33. Komunitatean hezkidetzako jardunbide egokiak identifikatzea eta jardunbide horiek truka-tzeko eta jendarteratzeko jardunaldiak antolatzea.
- 34. Hezkidetzaren esparruan jardunbide egokiak dituzten ikastetxeen esperientziak Parteka-tuz-Ikasi programan jasotzea.
- 35. Ikastetxeen eta udalerrietako berdintasuneko teknikarien arteko lankidetzeta-espazioetan lankidetzako praktikak sortzea.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA. Indarkeria matxista prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea

3.1 Helburu zehatza. Hezkuntza-komunitatea prebenitzea eta sentsibilizatzea indarkeria matxista ga-raiz detektatzeko.

- 37. Prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak gauzatzea, Emakunderekin elkarlanean.
- 38. Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen diferenteei buruzko materialak prestatzea, agertzen hasi diren moduetan sakonduz hauek hautematea bermatzeko. (Berritzegune Nagu-sia)

ARDURADUNAK: Hezkuntzako ikuskaritza

1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean prestakuntzaz, egiturez eta pertsonen bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.

1.1 Helburu zehatza. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko

- 9. Hautemandako beharren arabera, Hezkuntza Ikuskapenera zuzendutako prestakuntza zehatza antolatzea.
- 13. UPV/EHUren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bidez Hezkuntzako Ikuskaritzako langileei hezkidetzako arloan prestakuntza ematea.

1.2 Helburu zehatza. Hezkuntza-sisteman hezkidetzako eta berdintasunaren aldeko neurriak eta hezkidetzako ezartzeko eta koordinatzeko egiturak bermatzea.

- 18. Bizikasi-ren BAT taldean sartzea ikastetxeko hezkidetzako arduraduna .
- 20. Ikastetxeen elkarbizitzaren behatokia ikastetxeak garatzen duen hezkidetzako lanari lotutako funtzioak jasotzea.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA. Indarkeria matxista prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea

3.1 Helburu zehatza. Hezkuntza-komunitatea prebenitzea eta sentsibilizatzea indarkeria matxista garaiz detektatzeko.

- 39. Informazioa biltzeko sistema bat ezartzea, ikastetxeetan hautemandako emakumeen eta nesken aurkako indarkeria-kasuei buruzko datuak eskura edukitzeko, eraso sexistak, sexualak, homofobikoak, lesbofobikoak, transfobikoak etab. barne hartuz.

3.2 Helburu zehatza. Indarkeria matxistako egoerei azkar eta eraginkortasunez erantzutea.

- 41. Indarkeria matxistako kasuen jarraipena egitea, mota guztietako eraso sexista, sexual, homofobiko, lesbofobiko, transfobiko eta abar barne hartuta.

ARDURADUNAK: Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza eta/edo BAU - Berdintasuneko Teknikaria

1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsonen hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.

1.2 Helburu zehatza. Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta berdintasunaren aldeko neurriak eta hezkidetzaren ezartzeko eta koordinatzeko egiturak bermatzea.

- 19.** Beharrezkoak diren administrazio prozedurak hastea, hezkuntzako zerbitzu estrategikoen (ebaluazio, ikerketa, hezkuntza-lkuskaritza eta irakasleei laguntzeko zerbitzuak) lanpostu zerrendak aldatzeko; hain zuzen ere hezkidetzako gaitasuna errekonozituta duten lanpostuak egon daitezen.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea.

2.1 Helburu zehatza. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak betetzeko helburuarekin, curriculumean genero-ikuspegia gehitzeko hobekuntza-proposamenak lantzea.

- 21.** Irakasleei curriculumaren genero-ikuspegitik lantzeko jarraibideak eskainiko dizkieten gidak eta materialak egitea curriculumetik, Hezkidetzaren zutabe diren gaietan oinarrituz.

- 22.** Curriculumaren hezkidetzako ezarpena erraztuko duen gida bat lantzea (Heziberri).

2.2 Helburu zehatza. Genero-ikuspegia osagai estrategikotzat hartzea ikastetxeak eskaintzen dituen erakundeko eta antolakuntzako dokumentu guztietan.

- 24.** Planak eta proiektuak prestatzeko argitaratutako gidek genero-ikuspegia erantzen dutela bermatzea.

2.3 Helburu zehatza. Hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea.

- 27.** Ikastetxeko Hezkidetzaren Plana prestatzeko materialak lantzea eta ikastetxe guztietara banatzea.

- 31.** Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako berdintasuneko indizea lantzea, eskola mistoa hezkidetzako eskolan eraldatzeko aldaketak ebaluatzeko.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA. Indarkeria matxista prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea

3.1 Helburu zehatza. Hezkuntza-komunitatea prebenitzea eta sentsibilizatzea indarkeria matxista garaiz detektatzeko.

- 37.** Prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak gauzatzea, Emakunderekin elkarlanean.

- 40.** Etxean tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta hobetzeko indarrean dagoen Erakunde Arteko Hitzarmena betetzeko ikastetxeentzako hautemateko eta jarduteko jarraibideak lantzea eta zabaltzea.

ARDURADUNAK: EMAKUNDE

1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsonen hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.

1.1 Helburu zehatza. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek baterako hezkuntzan kualifikazioa dutela bermatzeko

- 6. Prest-Gara planaren esparruan, hezkidetzari buruzko ikastaro espezifikoak eskaintzea.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Ikastetxeek beren kulturen, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea.

2.1 Helburu zehatza. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak betetzeko helburuarekin, curriculumean genero-ikuspegia gehitzeko hobekuntza-proposamenak lantzea.

- 21. Irakasleei curriculum genero-ikuspegitik lantzeko jarraibideak eskainiko dizkieten gidak eta materialak egitea curriculumetik, Hezkidetzaren zutabe diren gaitan oinarrituz.
- 22. Curriculumaren hezkidetzako ezarpena erraztuko duen gida bat lantzea.
- 23. Hezkuntza-komunitate osoarentzako hezkidetzari buruzko baliabide-bankua eskaintzea.

2.2. Helburu zehatza. Genero-ikuspegia osagai estrategikotzat hartzea ikastetxeak eskaintzen dituen erakundeko eta antolakuntzako dokumentu guztietan.

- 24. Planak eta proiektuak prestatzeko argitaratutako gidek genero-ikuspegia eranstean dutela bermatzea.
- 26. Hezkidetzaren zutabeetan oinarrituta, Genero-ikuspegia Tutoretza eta Orientazio Planetan txertatzea.

2.3 Helburu zehatza. Hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea.

- 27. Ikastetxeko Hezkidetzaren Plana prestatzeko materialak lantzea eta ikastetxe guztietara banatzea.
- 31. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako berdintasuneko indizea lantzea, eskola mistoa hezkidetzako eskolan eraldatzeko aldaketak ebaluatzeko.
- 32. Ikastetxeek euren autoebaluazioa egin eta eskola mistoa hezkidetzako eskolan eraldatzeko aldaketak analiza dezaten sustatzea, berdintasun-indizean bildutako adierazleak erabiliz.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA. Indarkeria matxista prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea

3.1 Helburu zehatza. Hezkuntza-komunitatea prebenitzea eta sentsibilizatzea indarkeria matxista garaiz detektatzeko.

- 37.** Prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak gauzatzea, Emakunderekin elkarlanean.
- 38.** Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen diferenteei buruzko materialak prestatzea, agertzen hasi diren moduetan sakonduz hauek hautematea bermatzeko.

3.2 Helburu zehatza. Indarkeria matxistako egoerei azkar eta eraginkortasunez erantzutea.

- 40.** Etxean tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko indarrean dagoen Erakunde Arteko Hitzarmena betetzeko ikastetxeentzako hautemateko eta jarduteko jarraibideak lantzea eta zabaltzea.

ARDURADUNAK: ISEI-IVEI

1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsonen hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.

1.1 Helburu zehatza. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko

- 10.** Hautemandako beharren arabera, ISEI-IVEI erakundeari zuzendutako prestakuntza espezifikoa antolatzea.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikusez txerta dezaten sustatzea.

2.3 Helburu zehatza. Hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea.

- 31.** Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako berdintasuneko indizea lantzea, eskola mistoa hezkidetzako eskolan eraldatzeko aldaketak ebaluatzeko.

ARDURADUNAK: IRALE- Euskarazko Zerbitzuaren Buruzagitza

1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsonen hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.

1.1 Helburu zehatza. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko

- 15.** UPV/EHUren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bidez IRALEko langileei hezkidetzarloan prestakuntza ematea.
- 16.** UPV/EHUren HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN ikastaroaren bidez ikastetxeetako hezkidetzako eta bizikidetzako arduradunei hezkidetzarloan prestakuntza ematea.

2. eranskina. Hezkidetzaren zutabeak. Haur Hezkuntza

Genero-indarkeriari ikasgeletatik aurrea hartzeaz eta ikastetxeetan hezkidetzaren planak burutzeaz hitz egiten denean, abiapuntutzat hartzen dugu sexismo soziala dela genero-indarkeriaren kausa, hau da, indarkeria horien prebentzioan txiki-txikitatik lan egin beharko dela genero-desparekotasunaren, sexismoaren eta bizi garen berdintasun-ilusioaren kontra. Hori dela eta, ikastetxeetan, hezkidetzaren zutabe nagusiak barnean hartuko dituzten baterako ekintza sistematikoak garatu beharko dira; horren bidez, berdintasunezko oinarriak eraikiko dira eta oinarri horiek indarkeria matxistaren prebentzio bikaina izango dira. Emakumeek zein gizonek berdintasunik gabeko gizartea eraiki dugu, eta gizarte horrek markatu du gure izateko modua; berdintasuna, beraz, hezkuntza kontua da, eta desparekotasunaren, sexismoaren eta emakumeen aurkako edonolako indarkeriaren aurrean izpiritu kritikoa duten gizon eta emakume gisa taxutzen laguntzen digu.

Hezkidetzaren zutabeak emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko oinarria, eta hezkidetzaren ikastetxe baten ekintza guztiak —ikasgelaren mailan, irakasleen prestakuntzaren mailan eta antolamenduaren mailan— eusten eta zeharkatzen dituzten zenbait gai nagusi edo zutabe jorratzen ditu. Era berean, zutabe horiek hezkuntzaren estamentu guztietan agertu beharko dute, Hezkuntza Sailetik ikastetxeetako Idazkaritzetara eta Atezaintzetara.

Hezkidetzaren ekintzek eta ikastetxe bakoitzeko berdintasun-planek aintzat hartu beharko dute zutabe horien azterketa eta analisisa, baita horiek praktikan jartzea ere; hartara, eskolatzaren lehen urteetatik, berdintasuna ikasgelara eramateko lan sistematikoa egingo dugu.

Adin bakoitzak —hezkuntza-maila bakoitzak— ibilbide zehatza izango duenez gero, behar-beharrezkoa da irakasleak trebatzea hezkidetzaren gaiak haien ikasgelako testuinguruan aplikatzeko.

Ondoren, hezkidetzaren zortzi euskarriak Haur Hezkuntzan nola garatuko diren zehaztuko da.

Hezkidetzaren zutabeak. Haur Hezkuntza

HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ-SEXISTA

Hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren **eredu iza-tea**, eta erabilera hori zaintzea maila semanti-koan zein morfologikoan.

Neskak eta emakumeak **aipatzea**, femeninoa eta maskulinoa erabiltzea, berdintasunezko adjekti-bazioa erabiltzea, esamolde diskriminatzaileak saihestea, eta abar.

EMAKUMEEN JAKITURIAREN INTEGRAZIOA ETA HAIEN EKARPEN SOZIALA ETA HISTORIKOA

Gizonen eta emakumeen presentzia orekatua —kopuruan zein egitekoetan— erakusten duten testuak, ipuinak, abestiak eta abar **aukeratzea**. Bilduma irudidunen bidez emakume handiak ezagutzen **hastea**.

Hezkidetzat aintzat hartzen duten argitaletxeak **ezagutzea**.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

Etxeko esparruan: Zaintzen **ikastea**.

Neskek eta mutilek txoko guztiak **partekatzea**.

Emakumeek gainerako pertsonen zaintzan egiten duten lana **bistaratzea**.

Gizonezko zaintzaileak **aurkeztea eta ezagutzea**.

Gure inguruneke pertsonak zaintzearen gogobeteta-suna **bizitzea**.

Adin horietarako autonomia **lantzea**: janzteia, be-har fisiologikoak egitea, garbiketa, haien gauzak eta jostailuak jasotzea, askotariko berdintasunezko fa-milietan jolastea, etxeko zereginetan berdintasuna azaltzen duten ipuinak edo abestiak ekartzea, ikas-gela zaintzea, espazio komuna den aldetik.

Enpleguaren esparrua: ikasgelako materialetan gizonak eta emakumeak agertzen diren lanbideak **aztertzea**.

Lanbideak estereotipatuta ez dauden materialak proposatzea.

Haien lan-bizitzan estereotipoak apurtu dituzten emakumeak eta gizonak **ezagutzea**.

Lanbide guztietan emakumeak eta gizonak dauden ipuinak eta abestiak **ekartzea**, lanbideei eta lanbide horietan lan egiten dutenei buruz hitz egitea.

Lanbideetan berdintasunezko erreferenteak **eskain-tza**, neskentzako eta mutilentzako balizko lanbideen katalogoa zabaltzea, eta abar.

GATAZKEN KONPONKETA BAKETSUA

Txokoak genero-bereizketarik gabe **erabiltzea**.

Zaintzaren txoko batean arraza guztietako panpinak —mutilak zein neskak irudikatzen dituztenak— **sartzea**; mutilek zein neskek zainduko dituzte panpinak.

Emozioak **ezagutzea** eta **izendatzea**.

Ezetz esaten eta beste pertsonen ezetza errespetatzen **ikastea**.

Gustatzen zaizkigun eta gustatzen ez zaizkigun pertsonen jarrerak **bistaratzea**.

Egunero jasotako **zaintzak** aitortzea.

ESPAZIOAK IKASTETXEAN, ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK

Ikastetxeetako espazioak, batez ere **jolastokikoak**, historikoki mutilek hartu izan dituzte baloi bidezko lehia-jolasetarako —batez ere futboleko aritzeko—; hartara, ikastetxeko mutil gutxiengo batek okupatu ditu espazio horiek.

Ikastetxeetan, beste mota bateko jolastokien proiektu arrakastatsuak daude, eta behar-beharrezkoa izango da hezkidetzaz-jolastokien estrategia horiek nabarmentzea: lehia-jolasak ezabatzea eta lankidetzaz-jolasak egitea; kantxaren erabilera orokorra proposatzea, neskek zein mutilek jolas-garaian jarduerak egin ahal izan ditzaten; solaserako zonak planifikatzea; taldean atseden hartzekoak; lasaitasunez paseatzeko lekuak; harremanetarako lekuak; mahai-jokoetan aritzeko lekuak. Oro har, zementu gutxiago eta natura gehiago.

Era berean, **eskolaz kanpoko jarduerak edo jarduerak osagarriak** planifikatu beharko dira, neskek zein mutilek jarduerak partekatu ahal izan ditzaten, kanpoan utzita historikoki emakumeak diskriminatzen dituzten kirolekin lotzen den guztia, edo neskak txiki-txikitik hipersexualizatuta dauden ikuskizunekin lotzen den guztia. Hori dela eta, eskola-jaialdiak, inauterietako mozerroak eta abar berraztertu beharko dira, ekintza horien bidez ere berdintasunaren alde eta estereotipoen aurka lan egin dadin.

BERDINTASUNEZKO HEZKUNTZA AFEKTIBOA ETA SEXUALA

Nork bere gorputza **ezagutzea**, gorputzaren atalak naturaltasunez izendatzea —neskena zein mutilena—, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun fisikoak ezagutzea, nork bere gorputzaren eta beren ingurune pertsonen gorputzaren gaineko interesa izatea.

Ezetz esaten **jakitea**, eta zer gustatzen zaien eta zer gustatzen ez zaien aitortzea, haien eta gainerako gorputzetara iristeko mugak finkatzea (hautzaroen abusu sexualaren prebentzioa).

Gorputzaren arloko estereotipoen eta horien onarpenaren aurka **lan egitea**.

Pertsonen jatorriari buruzko galderei naturaltasunez eta haurrentzako hizkuntza ulergarrian **erantzutea**.

Atxikipena, lotura emozionala, familien aniztasuna eta antzeko gaiak **erakustea**. Genero-nortasuna **errespetatzea**, baita aniztasuna ere. Gorputzen aniztasuna eta errespetua zaintzea. Adin horietarako sexualitatea jorratzen duten ipuinak **partekatzea**.

Haur Hezkuntzara zuzendutako sexu-heziketako programak **ezagutzea**.

INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA

Neska eta mutil izateko berdintasunezko ereduen eraikuntzara bideratzea lana. Berdintasunezko maskulinitate-ereduak eta feminitate-eredu ahalbunduak konfiguratzaren diren heinean, **errotik ari gara genero-indarkeriari aurrea hartzen**.

Horrekin batera, **genero ikuspegia duen heziketa emozionala** ere gara daiteke. Esate baterako, ez pentsatzea neska bat mutil bat baino sentikorragoa izango dela edo mutil batek neska batek baino negar gutxiago egingo duela, edo, halaber, sentikortasun handiagoa adierazten duten neskengana edo mutilengana jotzea ikasgeletako gatazka-egoerak konpontzeko.

Amaitzeko, garrantzi handikoa da **berdinen arteko, nesken eta mutilen arteko, harremanak lantzen** hastea. Egoera batzuetan, gerta daiteke maitasun-adierazpen bat (muxu bat, laztan bat, besarkada bat) desiragarria izatea adierazpen hori gauzatzen duenarentzat baina ez jasotzen duenarentzat, eta egoera horietan, hain zuzen ere, landu dezakete irakasleek **garrantzi handikoa dela jakitea bestearen gorputzera iristeko muga** beste pertsona horrek jartzen duela; ezin dugu inor besarkada bat edo muxu bat jasotzera edo onartzera behartu, halakorik nahi ez badu.

Sentsibilizazio horretarako askotariko **tresnak** erabil ditzakegu: **ipuinak, jolasak, jostailuak, abestiak, marrazkiak...**

Garatu beharreko **edukiak**:

- Feminitate ahalbunduak eraikitzea
- Berdintasunezko maskulinitateak eraikitzea
- Heziketa emozionala, generoaren ikuspegitik
- Maitasun-adierazpen desiratuak

PENTSAMENDU KRITIKOA SEXISMOAREN AURREAN

Ipuinetako, abestietako edo irudietako pertsonaia femeninoen eta maskulinoen jardunen **analisi**.

Material, ipuin eta abesti ez-estereotipatuen **bilaketa**.

Narrazioetan genero-rolen **aldaketa**.

3. eranskina. Hezkidetzaren zutabeak. Lehen Hezkuntza

Genero-indarkeriari ikasgeletatik aurrea hartzeaz eta ikastetxeetan hezkidetzak planak burutzeaz hitz egiten denean, abiapuntutzat hartzen dugu sexismo soziala dela genero-indarkeriaren kausa, hau da, indarkeria horien prebentzioan txiki-txikitik lan egin beharko dela genero-desparekotasunaren, sexismoaren eta bizi garen berdintasun-ilusioaren kontra. Hori dela eta, ikastetxeetan, hezkidetzaren zutabe nagusiak barnean hartuko dituzten baterako ekintza sistematikoak garatu beharko dira; horren bidez, berdintasunezko oinarriak eraikiko dira eta oinarri horiek indarkeria matxistaren prebentzio bikaina izango dira. Emakumeek zein gizonek berdintasunik gabeko gizartea eraiki dugu, eta gizarte horrek markatu du gure izateko modua; berdintasuna, beraz, hezkuntza kontua da, eta desparekotasunaren, sexismoaren eta emakumeen aurkako edonolako indarkeriaren aurrean izpiritu kritikoa duten gizon eta emakume gisa taxutzen laguntzen digu.

Hezkidetzak da emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko oinarria, eta hezkidetzak ikastetxe baten ekintza guztiak —ikasgelaren mailan, irakasleen prestakuntzaren mailan eta antolamenduaren mailan— eusten eta zeharkatzen dituzten zenbait gai nagusi edo zutabe jorratzen ditu. Era berean, zutabe horiek hezkuntzaren estamentu guztietan agertu beharko dute, Hezkuntza Saitetik ikastetxeetako Idazkaritzetara eta Atezaintzetara.

Hezkidetzak-ekintzek eta ikastetxe bakoitzeko berdintasun-planek aintzat hartu beharko dute zutabe horien azterketa eta analisia, baita horiek praktikan jartzea ere; hartara, eskolatzearen lehen urteetatik, berdintasuna ikasgelara eramateko lan sistematikoa egingo dugu.

Adin bakoitzak —hezkuntza-maila bakoitzak— ibilbide zehatza izango duenez gero, behar-beharrezkoa da irakasleak trebatzea hezkidetzaren gaiak haien ikasgelako testuinguruan aplikatzeko.

Hezkidetzaren zutabeak. Lehen Hezkuntza

PENTSAMENDU KRITIKOA SEXISMOAREN AURREAN

Ikasgeletan erabiltzen diren materialak eta liburuak **aztertzea**, genero-estereotipoei erreparatuta.

Ikasleei generoaren ikuspegitik aztertzen **irakastea**: jostailuen liburuxkak, jolasak, koloreen erabilera, marrazki bizidunak, haurrentzako filmak, lanbideak eta abar. Berdintasun handiagoko mundu baten alde generoaren estereotipoak apurtzeko gauza izan diren pertsonak **bistaratzea**.

EMAKUMEEN JAKITURIAREN INTEGRAZIOA ETA HAIEN EKARPEN SOZIALA ETA HISTORIKOA

Testu-liburuetan eta, oro har, kulturen emakumeen presentzia gizonezkoena baino askoz ere txikiagoa dela **jakitun izatea**.

Ikasleentzat motibatzaileak diren esparruetan dauden emakume ospetsuak eta garrantzitsuak **ezagutzea**: teknologoak, asmatzaileak, piratak, zientzialariak, idazleak, kirolariak...

Interneten bilatutako informazioa ikertzeko eta ebaluatzeko lanaren lehen urratsekin **hastea**, bistaratu gabeko emakumeak eta haien ekarpenak ikertuz.

HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ- SEXISTA

Hizkuntzaren erabilera ez-baztertzaileren **eredu izatea**.

Hizkuntzako sexismoa aztertzen **hastea** jada, desparekotasunen jakitun izateko. Hizkuntzaren erabilera ez-baztertzaileren beharrari buruzko hizkuntza-kontzientzia **hastea**, baita hizkuntzako sexismoaren aurrean hautabideak bilatzen **hastea** ere. Hizkuntzaren erabilera sexista duten testuak **aztertzea**, ikasleen hurbileko testu batzuetan erabiltzen diren ezaugarri sexistak ezagutzea eta horietarako hautabideak aztertzea.

GATAZKEN KONPONKETA BAKE- TSUA

"Enpatiaren" kontzeptua **ikastea**, praktikan jartzea.

Gatazka eragiten diguna **aztertzea**.

Irtenbide baketsuak **bilatzea**, eztabaidatzea, talde gisa eta gizabanako gisa zaintzea, gure emozioak eta emozio horiekiko gure erreakzioak ezagutzea.

Gainerako pertsonen espazioa eta gauzak errespetatzen **ikastea**.

Taldeko materiala **errespetatzea**, guztiena baita.

Ikasgela atsegina eta zaintza-espazioak **eraikitzea**.

INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA

Adinean zenbat eta gehiago aurrera egin, orduan eta gehiago **bistaratzen** dira egon daitezkeen desparekotasunak eta **genero-diskriminazioak**, eta hor lan egin beharko dugu, desparekotasun eta diskriminazio horien dekonstrukziorako.

Funtsezkoa da **gorputza eta mugak** lantzea, baita maitasun-adierazpenak emateko eta jasotzeko nahia ere.

Nahitaezkoa da **autozaintza** lantzea, nesken zein mutilen artean.

Mutilen artean, oso lotuta egongo litzateke jolasen bidez sor daitezkeen arrisku-jokabideekin. Era berean, oso lotuta egongo litzateke **emozioen munduarekin**, geure burua zaintzera eramaten gaituzten sentimenduen eta emozioen adierazpenarekin. Azkenik, generoaren ikuspegitik, **ondo tratatzearen** alderdiak jorratu beharko dira (entzutea, zaintzea eta baloratzea), baita **gaizki tratatzea** definitzen duten alderdiak ere (iraintzea, mespretxatzea, gutxiestea).

Genero-indarkeriaren prebentzioan lan handia egin da, batez ere arreta neskengan jarrita. Hala ere, funtsezkoa da ikuspegia aldatzea eta arreta mutilengan jartzea, mutilek problematika horretan duten zereginen hain zuzen ere. **Emakumeen aurkako indarkeria-egoeretikiko enpatia** sustatu behar da; esate baterako, neska bati jolas-garaian galtzak jaisten dizkiotenean, garrantzi handikoa da neskek zein mutilek jokabide horiek baztertzea neska horrekiko enpatia-aren bitartez. Desparekotasunarekiko eta emakumeen aurkako indarkeriarekiko **enpatian** hezte funtsezkoa da desparekotasun eta indarkeria hori desagerrarazteko.

Garatu beharreko **edukiak**:

- Feminitate ahaldunduak
- Berdintasunezko maskulinitateak
- Gure gorputzak
- Autoezagutza
- Baietz esaten dudanean Bai da: berdintasunean jolastea
- Nesken eta mutilen arteko harremanak
- Autozaintza
- Broma sexisten analisisa
- Ondo tratatzea versus Gaizki tratatzea
- Enpatia
- Abestien analisisa
- Sexismorik gabeko bideo-jokoak

ESPAZIOAK IKASTETXEAN, ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK

Ikastetxeetako espazioak, batez ere **jolastokikoak**, historikoki mutilek hartu izan dituzte **baloi bidezko lehia-jolasetarako** —batez ere futboleko aritzeko—; hartara, ikastetxeko mutil gutxiengo batek okupatu ditu espazio horiek.

Ikastetxeetan, beste mota bateko jolastokien proiektu arrakastatsuak daude, eta behar-beharrezkoa izango da hezkidetza-jolastokien estrategia horiek nabarmentzea: lehia-jolasak ezabatzea eta lankidetzajolasak egitea; kantzaren erabilera orokorra proposatzea, neskek zein mutilek jolas-garaian jarduerak egin ahal izan ditzaten; solaserako zonak planifikatzea; taldean atseden hartzekoak; lasaitasunez paseatzeko lekuak; harremanetarako lekuak; mahai-jokoetan aritzeko lekuak. Oro har, zementu gutxiago eta natura gehiago.

Era berean, **eskolaz kanpoko jarduerak edo jarduera osagarriak** planifikatu beharko dira, neskek zein mutilek jarduerak partekatu ahal izan ditzaten, kanpoan utzita historikoki emakumeak diskriminatzten dituzten kirolekin lotzen den guztia, edo neskak txiki-txikitatik hipersexualizatuta dauden ikuskizunekin lotzen den guztia. Hori dela eta, eskola-jaialdiak, inauterietako moztorroak eta abar berraztertu beharko dira, ekintza horien bidez ere berdintasunaren alde eta estereotipoen aurka lan egin dadin.

BERDINTASUNEZKO HEZKUNTZA AFEKTIBOA ETA SEXUALA

Gorputzen desberdintasunak, gorputzaren zain-tza eta aurre-pubertaroko aldaketa fisiologikoak **erakustea**.

Sexu-orientazio desberdinak **errespetatzea eta ezagutzea**.

Afektuen adierazpena **orokortzea**, genero-estereotiporik gabe.

Harreman afektiboen eta sexualen mugak **erakustea** (adin txikikoen aurkako sexu-abusuen prebentzioa).

Nesken eta mutilen sexu-heziketan genero-estereotipoak modu kritikoan **aztertzea**, LGBTfobiak, Mendebaldeko edertasun- eta erakargarritasun-ereduen analisi kritikoak.

Harreman afektiboetan eta sexualetan tratatu onen eta berdintasunaren etika **transmititzea**, harreman afektibo-sexualetan indarkeria kritikatzeko, familia-eredu desberdinak ezagutzea.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

Etxeko esparruan: Jada etxean egin daitezkeen etxeko zereginak **aztertzea**: haien lehen platerak kozinatzea, mahaia biltzea, harrikoa egitea...

Egunerokotasunean egin behar diren oinarrizko etxeko zereginak egiten **ikastea**.

Familietan etxeko zereginak nork egiten dituen eta nork zer egiten duen **aztertzea**, baita familiako emakumeek eta gizonak etxeko zeregineizenbat denbora eskaintzen dioten ere.

Desparekotasunak, halakorik badago, **bistaratzea**.

Enpatia **lantzea**, pertsonen zaintzarako oinarri gisa; ikasgela pertsonen zaintzarako leku egitea, gizon zaintzaileak ezagutzea, eta abar.

Ikasgelan **praktikan jartzea** inolako zeregin ez dela neskena edo mutilena.

Lanbide-esparrua: Ikasgelako testu-liburuak eta materialak lanaren sexu-banaketaren ikuspegitik **aztertzea**, eta material horien gabeziak berdintasunezko beste material batzuekin osatzea —material horietan lanbideak ez dira sexuen arabera bereiziko—.

Lanbideetan emakumeen eta gizonen presentzia **aztertzea**, eta lanbidearen arloan estereotipoak apurtu dituzten emakumeak eta gizonak ezagutzea.

Lanbidearen arloan eta arlo akademikoan estereotipoak apurtzeko zailtasun historikoak **aztertzea**.

Arlo bakoitzeko emakumezko aitzindariak **ezagutzea eta ikertzea**, berdintasunezko erreferente profesionalak aurkeztea.

4. eranskina. Hezkidetzaren zutabeak. Bigarren Hezkuntza

Genero-indarkeriari ikasgeletatik aurrea hartzeaz eta ikastetxeetan hezkidetzaren planak burutzeaz hitz egiten denean, abiapuntutzat hartzen dugu sexismo soziala dela genero-indarkeriaren kausa, hau da, indarkeria horien prebentzioan txiki-txikitatiki lan egin beharko dela genero-desparekotasunaren, sexismoaren eta bizi garen berdintasun-ilusioaren kontra. Hori dela eta, ikastetxeetan, hezkidetzaren zutabe nagusiak barnean hartuko dituzten baterako ekintza sistematikoak garatu beharko dira; horren bidez, berdintasunezko oinarriak eraikiko dira eta oinarri horiek indarkeria matxistaren prebentzio bikaina izango dira. Emakumeek zein gizonak berdintasunik gabeko gizartea eraiki dugu, eta gizarte horrek markatu du gure izateko modua; berdintasuna, beraz, hezkuntza kontua da, eta desparekotasunaren, sexismoaren eta emakumeen aurkako edonolako indarkeriaren aurrean izpiritu kritikoa duten gizon eta emakume gisa taxutzen laguntzen digu.

Hezkidetzaren aurkako indarkeriari aurrea hartzeko oinarria, eta hezkidetzak ikastetxe baten ekintza guztiak —ikasgelaren mailan, irakasleen prestakuntzaren mailan eta antolamenduaren mailan— eusten eta zeharkatzen dituzten zenbait gai nagusi edo zutabe jorratzen ditu. Era berean, zutabe horiek hezkuntzaren estamentu guztietan agertu beharko dute, Hezkuntza Sailetik ikastetxeetako Idazkaritzetara eta Atezaintzetara.

Hezkidetzaren ekintzek eta ikastetxe bakoitzeko berdintasun-planek aintzat hartu beharko dute zutabe horien azterketa eta analisisa, baita horiek praktikan jartzea ere; hartara, eskolatzaren lehen urteetatik, berdintasuna ikasgelara eramateko lan sistematikoa egingo dugu.

Adin bakoitzak —hezkuntza-maila bakoitzak— ibilbide zehatza izango duenez gero, behar-beharrezkoa da irakasleak trebatzea hezkidetzaren gaiak haien ikasgelako testuinguruan aplikatzeko.

Hezkidetzaren zutabeak. Bigarren Hezkuntza

PENTSAMENDU KRITIKOA SEXISMOAREN AURREAN

Irakasgai eta material guztiak, testu-liburuak, narrazioak, gustatzen zaizkien abestiak, bideo-jokoak, telebista-saioak, filmak eta abar generoaren ikuspegitik **aztertzea**.

Haien jarrerak **autoebaluatzea**, genero-estereotipoei eta sexismoari dagokionez, berdintasunezko nortasuna eraikitzearen.

EMAKUMEEN JAKITURIAREN INTEGRAZIOA ETA HAIEN EKARPEN SOZIALA ETA HISTORIKOA

Androzentrismoaren kontzeptua sartzea.

Emakumeen bistaratze-gabeziaren kausak **aztertzea**.

Gaietako bakoitzean izen handiko emakume nagusiak **ezagutzea**.

Emakumeek gizateriari egindako ekarpenei buruzko ikerketa txikiak **egitea**. Mugimendu feminista eta egungo emakumeentzako eta gizonentzako lorpenak ikasten **hastea**.

Kristalezko sabaia, soldata-arrakala eta lanaren sexu-banaketa gisako kontzeptuak **ikastea**.

HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ-SEXISTA

Hizkuntzaren erabilera ez-sexista orokortzea.

Hizkuntzaren erabilera ez-sexista **sakontzea**. Maiz testu-liburuetan, kazetaritza-testuetan eta abar agertzen den "jauzi semantikoaren" kontzeptua **txertatzea**.

Hizkuntzaren bilakaera **aztertzea**, baita ahozko eta idatzizko hizkuntzaren arteko aldeak, gaztelaniaren eta euskararen idatzizko normalizazio, RAEk hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren aurka duen jarrera eta beste aditu batzuek hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren alde duten jarrera.

GATAZKEN KONPONKETA BAKETSUA

Gure emozioak, erreakzioak eta gatazken aurrean ditugun estrategiak **ezagutzea**.

Eztabaidatzen eta hitz egiten **ikastea**; entzuten **ikastea**.

Bereziki zaurgarriak diren pertsonetako empatia **praktikan jartzea**.

Eskola-jazarpenari buruz **gogoeta egitea**, genero-ikuspegitik, eta, hartara, jazarpenaren kontrako aktibista bihurtzea.

Berdintasunezko maskulinitatei buruz eta feminitate ahaldunduei buruz **hitz egitea**.

Ingurune ko kultura-produktuetan (filmetan, nobeletan, bideo-jokoetan, abestietan eta abar) maskulinitateen eta feminitateen eraikuntza **aztertzea**.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

Etxeko esparruan:

Pertsona bakoitzak etxeko zereginetan egiten duen ekarpena **aztertzea**, emakumeak eta gizonak bereizita, eta emakumeek eta gizonak etxeko zereginetan astean ematen dituzten orduak kalkulatzeko.

Etxeko zereginak **ikastea eta egitea**: janaria, arropa, espazioen higieena, txukuntasuna, erabilera publikoko materialen zaintza, ikasgela espazio jasangarri gisa.

Sexuen araberako lanaren banaketaren kausak **ikertzea eta aztertzea**, produkzio-lana/erreprodukzio-lana, erantzukizuna inguruko pertsonen eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzan, gurasotasun erantzunkidea eta berdintasunezkoa, amatasun boluntarioa.

Erantzukidetasun-gabeziarekin lotzen diren gatazkak **aztertzea**.

Lanbide-esparrua:

Sexuaren araberako lanaren banaketari buruz eta ikasketen eta lanen aukeraketari buruz **ikas-tea**, soldata-arrakala, kristalezko sabaia, amatasun eta aitatasun baimen berdinak eta besteren ezinak.

Lan-munduko desparekotasunaren historia **aztertzea**, lanbide arloan estereotipoak apurtu dituzten emakumeen eta gizonen erreferenteak, lanean berdintasuna aldarrikatzen aitzindariak izan diren emakumeak, mugimendu feminista, emakumeak irakaskuntzan sartzeko aldarrikapena, lan-munduko estereotipoen ikerketa konparatzaileak, eta abar.

ESPAZIOAK IKASTETXEAN, ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK

Ikastetxeetako espazioak, batez ere **jolastoki-koak**, historikoki mutilek hartu izan dituzte baloi bidezko **lehia-jolasetarako** —batez ere futbolean aritzeko—; hartara, ikastetxeko mutil gutxiengo batek okupatu ditu espazio horiek.

Ikastetxeetan, beste mota bateko jolastoki proiektu arrakastatsuak daude, eta behar-beharrezkoa izango da hezkidetza-jolastoki estrategia horiek nabarmentzea: lehia-jolasak ezabatzeko eta lankidetzako jolasak egitea; kantzaren erabilera orokorra proposatzea, neskek zein mutilek jolas-garaian jarduerak egin ahal izan ditzaten; solaserako zonak planifikatzea; taldean atsedean hartzekoak; lasaitasunez paseatzeko lekuak; harremanetarako lekuak; mahai-jokoei aritzeko lekuak. Oro har, zementu gutxiago eta natura gehiago.

Era berean, **eskolaz kanpoko jarduerak edo jarduera osagarriak** planifikatu beharko dira, neskek zein mutilek jarduerak partekatu ahal izan ditzaten, kanpoan utzita historikoki emakumeak diskriminatzen dituzten kirolekin lotzen den guztia, edo neskek txiki-txikitatik hipersexualizatuta dauden ikuskizunekin lotzen den guztia. Hori dela eta, eskola-jaialdiak, inauterietako moztorroak eta abar berraztertzea beharko dira, ekin-tza horien bidez ere berdintasunaren alde eta estereotipoen aurka lan egin dadin.

BERDINTASUNEZKO HEZKUNTZA AFEKTIBOA ETA SEXUALA

Nerabegaroko aldaketa fisiologikoak eta psikologikoak **ikastea**.

Norberaren gorputza komunikazio- eta plazer-iturri gisa **onartzea**.

Erakarmen erotikoen gustuen aniztasuna **errespetatzea**.

Edertasunaren eredu estetikoak **aztertzea**.

Fisiologia maskulinoa eta femeninoa **ezagutzea**, anatomia.

Harreman pertsonaletan eta sexualetan etika **transmititzea**; adostasuna, plazer partekatua, osasun sexuala, leialtasuna, berdintasuna eta elkarrekiko zaintza. Egoera gatazkatsuak enpatiatik eta gainerako enpatia eskubideak onartzetik **konpontzea**. **Lankidetzan jardutea eta laguntzea**. Iruditeria erotikoa aniztasunetik eta ez-sexistotik **eraikitzea**. Berdintasuna **onartzea**, genero-indarkeriaren prebentzio gisa. Maitasuna: maitasun motak, analisi kritikoa. Mito erromantikoaren dekonstrukzioa. Desberdintasunak nesken eta mutilen sexualitatean. Genero-indarkeriaren arloan dauden baliabideak hurbiltzea.

Maitasun erromantikoaren mitoen **dekonstrukzioa**. Nesken eta mutilen sexualitatean dauden aldeak **onartzea**.

Sexu- eta erreproduktzio-osasunaren arloko baliabideak **hurbiltzea**.

Sare sozialen erabilera etikoari buruz **eztabaidatzea**.

Pornografia emakumeen kontrako indarkeria-tzat **jotzea**.

INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA

Adinean zenbat eta gehiago aurrera egin, orduan eta gehiago **bistaritzen** dira egon daitezkeen desparekotasunak eta genero-**diskriminazioak**, eta hor lan egin beharko dugu, desparekotasun eta diskriminazio horien dekonstrukziorako.

Funtsezkoa da **gorputza eta mugak lantzea**, baita maitasun-adierazpenak emateko eta jasotzeko nahia ere.


Nahitaezkoa da **autozaintza** lantzea, nesken zein mutilen artean.

Mutilen artean, oso lotuta egongo litzateke jolasen bidez sor daitezkeen arrisku-jokabideekin. Era berean, oso lotuta egongo litzateke **emozioen munduarekin**, geure burua zaintzera eramaten gaituzten sentimenduen eta emozioen adierazpenarekin. Azkenik, generoaren ikuspegitik, **ondo tratatzearen** alderdiak jorratu beharko dira (entzutea, zaintzea eta baloratzea), baita **gaizki tratatzea** definitzen duten alderdiak ere (iraintzea, mespretxatzea, gutxiestea).

Genero-indarkeriaren prebentzioan lan handia egin da, batez ere arreta neskengan jarrita. Hala ere, funtsezkoa da ikuspegia aldatzea eta arreta mutilengan jartzea, mutilek problematika horretan duten zereginetan hain zuzen ere. **Emakumeen aurkako indarkeria-egoerekiko enpatia** sustatu behar da; esate baterako, neska bati jolas-garaian galtzak jaisten dizkiotenean, garrantzi handikoa da neskek zein mutilek jokabide horiek baztertzea neska horrekiko enpatiarekin bitartez. Desparekotasunarekiko eta emakumeen aurkako indarkeriarekiko **enpatian** hezteko funtsezkoa da desparekotasun eta indarkeria hori desagerrarazteko.

Garatu beharreko **edukiak**:

- Feminitate ahalbunduak
- Berdintasunezko maskulinitateak
- Feminitate ahalbunduak
- Berdintasunezko maskulinitateak
- Sare sozialen erabilera generoaren ikuspegitik
- Zibermatxismoa
- Maitasun erromantikoa
- Mikromatxismoak
- Genero-indarkeriaren gaineko mitoak
- Ziberindarkeria: sexting, sextortzioa, grooming, pornomendekua, ciberstalking
- Maitasun erromantikoaren mitoak
- Genero-indarkeria eskolaren ingurunean
- Harreman osasuntsuak versus harreman toxikoak
- Emakumeen genitalen mutilazioa
- Sexu-indarkeria bikote-harremanetan
- Genero-indarkeria gaueko aisialdiko espazioetan
- Posible dira bestelako harreman afektiboak eta sexu-
lek



5. BIBLIOGRAFIA



- 175/2007 DEKRETUA, *Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculum* ezartzekoa.
- 236/2015 DEKRETUA, *abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum* zehaztu eta *Euskal Autonomia Erkidegoan* ezartzen duena.
- COUNCIL OF EUROPE. Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra las mujeres y la violencia doméstica. 2011
- EMAKUNDE. Emakumeen genitalen mutilazioa *Euskal Autonomia Erkidegoan. Jardun profesionalaren oinarritzko printzipioak*. 2015
- --Berdintasunaren balioak duen eragina *Euskadiko Batxilergoko 2. urteko ikasleek goi-mailako ikasketak hautatzerakoan*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2016.
- --Txostena: Zifrak. Emakumeak eta gizonak Euskadin. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2017.
- --EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisisa eta interpretazioa. Datu estatistikoak, 2017.
- -- EAE-ko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako VII. Plana. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2018.
- --EAE-ko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako VII. Plana. Laburpena. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2018.
- EUSKO JAURLARITZA. *Estrategia eta plan eragilea Euskadin soldata arrakala murrizteko*. 2018
- --XI. Legegintzako Gobernu Programa: 2016-2020.
- HEZIBERRI 2020. *Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa*. Hezkuntza Saila
- ISEI-IVEI. *Pisa 2015 Euskadi. Emaitzen txostena*. Bilbao: ISEI-IVEI, 2017
- Munduko Osasun Erakundea. *Orientaciones técnicas internacionales sobre educación en sexualidad. Un enfoque basado en la evidencia*. UNESCO. Hezkuntza Sektorea. 2018.
- OSAKIDETZA, EMAKUNDE ETA EUSKO JAURLARITZA. *Emakumeen genitalen mutilazioa. Euskadiko Osasun Sisteman gomendatutako jardunen gidaliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2016.
- EUROPAKO PARLAMENTUA. *Women and education in the UE*. Estrasburgo: Europako Parlamentua, 2015.
- Urruzola, M. J. *Cordobako Udalaren Berdintasun Ordezkaritzak egindako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko foroan aurkeztutako txostena*, 2006.